


ttipi ttapa

2003ko irailaren 18a • XXIII. urtea



Urriaren 26an udal hauteskundeak

03

Inor aurkeztu ez zelako edo aurkeztu zena legez kanpo utzi zutelakoz, udal ordezkariak aukeratu ez zuten herrietan hauteskundeak izanen dituzte urriaren 26an.



Meeki Kopako txapel-dun

32

Francisco Javier Meeki 43 urteko txirrindulari elizondarrak betaranoei zuzendutako Espainiako Kopara irabazi du. Munduko txapelketan ere parte hartu du.



04 Joxe Mari Apezetxea: Bizitza osoa koadroak margotzen

Burdgingintza profesionala

Eraikuntzako materiala

Zuraren ebaketa eta lanketa

Brikolajea

6000 m²-ko instalazioak

www.alkain.com

Amutalde kalea, 17 • 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 642 025 • Faxa: 943 643 239

Kutsidazu bidea, Ixabel

Lesakako Kultur Egunen barrenean

Irailaren 20an • Zambran • 20:00etan

Antolatzailea: Lesakako Euskara Batzordea • Laguntzailea: Lesakako Udala
Sarrerak: Kattu, Errekalde eta Izarra okindegian

5 €

DATUAK...

- 76 urte ditu Joxe Mari Apezetxea margolari erratzuarrak eta bizi osoa darama koadroak margotzen.
- Hainbat erakusketa egin ditu bere lanekin. Azkenekoa uda honetan paratu du bere etxean, Zubietean.
- Denborarekin margotzen ikasi eta hobetu egiten dela dio. *“Nire lehenbiziko lanek ez dute ja ikustekorik azkenekoekin. Aunitz dut ikasteko oraindik eta ongi naizen artean koadroak margotzen segituko dut”.*



Joxe Mari APEZETXEA *Erratzuko margolaria*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Lehenbiziko intentziotik ateratzen diren koadroak izaten dira hoberenak»

Joseba OLAGARAI

Noiztik zabilta koadroak margotzen Joxe Mari?

Nik uste bizi osoa daramakitela koadro eta margo artean. Ttiki-ttikitan nire kasa hasi nintzen pintatzen, berzko afizioa haundia nuelako. Gero, suerte haundia izan nuen nire bigarren osaba batek, Zigak, aunitz lagundu zidalako. Margolari ezaguna zen bera eta aunitz erakutsi zidan. Uda partean eta bakantzetan harekin biltzen nintzen eta maixu haundia izan nuen urtetan.

Hamabortz urte eman nituela ja margotu gabe baina denboraldi hori kenduta, beti segitu dut margotzen.

Zerk inspiratzen zaitu koadroak margotzerakoan?

Ni errealitatearekin inspiratzen naiz baina nik ikusten dudana errealitatea seguru ez dela zuk ikusten duzuna bezalakoa. Hortaz, margotzerakoan aldatu egiten dut berez ikusten dena eta nire pertsonalitatearekin nahasiz sortzen dut koadroa. Horrela, etxek adibidez puskatuak eta makurtuak margotzen ditut. Oraindik arkitecto batek erraten zidan: “zuk ika-

«Ni errealitatearekin inspiratzen naiz baina koadroa margotzerakoan aldatu egiten dut berez ikusten dena. Horrela, nire pertsonalitatearekin nahasiz sortzen dut koadroa»

ragarrizko suertea duzu, ez zaizkizu inoiz etxeak erortzen...” (irriz)

Zenbat denbora pasatzen duzu egunean margotzen?

Egun desberdinak izaten ditut. Batzutan lau ordu, bertzetan hiru... eta badira ja margotzen ez dudana egunak ere. Zenbaitzutan lehenbizikotik ateratzen zaizkit gauzak eta bertzetan berriz sekulako denbora pile pasatzen dut zerbait ezin akituz. Hori ez da ona izaten, koadro batek lan haundia baldin badu eta denbora aunitz pasatzen baduzu hori egiten, emaitza txarra izaten baita. Lehenbiziko intentziotik ateratzen diren lanak izaten dira onenak, “ti-ta” batean egindakoak. Izan ere, gaur ez duzu bihar bezala pentsatzen eta gaur hasitako lan bat bihar, etzi eta hurrengoan luzatzen segitzen baduzu,

ez dakizu nola akituko den afera. Hoberena hasi eta akabatu, momentuan berean egitea da.

Zer ikusten duzu zure koadro bat begiratzen duzunean?

Batzutan satisfakzio polita eta bertzetan berriz gusto txarra uzten dit. Margotzen duzun momentuan tentsazio bat izaten duzu baina behin akitutakoan aldatu egiten da normalean. Batzutan hobera eta bertzetan txarrera. Pasatu izan zait duela urte aunitz arras polita egin nuela uste nuen koadro bat ikusterakoan ez dela hainbertzerako pentsatzea eta baita aldrebes ere.

Denborarekin ikasi eta hobetu egiten da. Nire lehenbiziko koadroek azkenekoekin ez dute ja ikustekorik. Eboluzionatuz joaten zara urtetan aitzinera egin ahala. Hasi nintzenetik aunitz aldatu da nire margotzeko estiloa eta ikasi ere aunitz egin dut. Eta oraindik gehiago egitea espero dut gainera. Horregatik, ongi naizen artean eta horretarako indarra dudana bitartean koadroak margotzen segituko dut.



MAIATZAREN 25EKOAREN ONDOTIK

Urriaren 26an udal eta kontzejuak hautatzeko aukera berria

Nafarroako 32 udal eta 140 kontzeju gelditu ziren maiatzaren 25ean hauteskunderik egin gabe. Horien artean daude Arano, Beintza-Labaien, Bera eta Oizko Udalak, eta Legasa, Narbarte eta Oierregiko Kontzejuak. Irailaren 22a da udal-kandidaturen zerrendak aurkezteko azken eguna eta 29an argitaratuko dira behin betiko zerrendak Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Bertzalde, maiatzaren 25ean hautatutako udalbatzek legealdi berriko lehen hiruhilabeteak bete dituzte egun hauetan. Gure eskualdeari dagokionez, herririk handienak alkate berria estrenatu dutenez, balorazioa eskatu diegu.

J. IRIGOIEN

Joan den maiatzaren 25ean ez zen udal eta kontzejuetako hauteskunderik egin gure eskualdeko 7 herritan. Izan ere, horietako seitan ez zen hautes-zerrenda bat bera ere aurkeztu, eta Berako kasuan, aurkeztu zen zerrenda bakarra (Berainez) debekatu egin zutelako. Nafarroako datuei erreparaturaz, 32 udal eta 140 kontzeju dira egoera honetan daudenak.

Horrelakoetan prozedura administratiboak dio hurrengo sei hilabeteko epean hauteskundeak egiteko bigarren deialdi bat deituko dela. Kontzejuetako hauteskundeak zuzentzea Nafarroako Foru Administrazioaren konpetentzia da, eta udal hauteskundeak aldiz, Espainiako administrazio zentralak du bere esku prozedura osoaren ardura.

ARTXIBOKOA

Herriko Etxeko ordezkariak hautatzeko modua izanen dute oraingoan Beran.

AZKEN MOMENTUAN ERABAKIKO DIRA ZERRENDA GEHIENAK

Irail hasieran eman ziren eza-gutzera hauteskunde prozesu honen datak eta epeak. Udako ajeak, dirudienez, *etxeko-lanak* egin gabe harrapatu ditu guztiak, eta azken-azkeneko momentuan erabakiko dira kandidaturak. Generalean iduri du herri gehienetan aurkeztuko dela zerrendaren bat, eta Berako kasuan gutienez bi ari dira buru-belarri ahalegin horretan; batetik EA eta bertzetik lehen ere alkate izana den Manuel Iriartek zuzenduko duen kandidatura independientea. Aranon ere, zerrenda berrantolatu ondotik, orain den taldeak segituko du Iñigo Larrea buru duela. Bertze herrietan bilerak egiten ari ziren, eta itxura guztien arabera azkeneko momentuan argituko da zalantza.

ALKATE BERRIAK: *lehen hiruhilabeteko balorazioak*



**Patxi SAENZ
LEITZA**

«Leitzak behar du dedikazioa emanen dion udal ordezkariaren bat»

Pozik hartu ditu emaitzak. *“Hirugarren indarra gara: Larrainek 47 botu gehiago zituen, uste dut, eta UPNk 12. Azken momentuan egindako zerrrenda izateko eta kanpaina batere errexa ez zela ikusita, pozik egoteko motiborik bada”*. Legealdi hasiera *“zaila”* ari zaiela gertatzen adierazi digu, nahiz eta *“oraindik zailagoa izatea”* espero zuela aitortu. Bestalde, maiatzeko hauteskundeetan boto gehien eskuratu zuen plataformakoekin (Larrain) *“harreman onak”* izan arren, *“ez da gauzatu pentsatzen genuena”*.

Gainerakoan, Leitzako udalak duen bolumenagatik eta eskatzen duen atenziagatik, egunero egunero lanordu asko sartzea eskatzen duela ikusten du Patxi. Dedikazio hori ordaintzeko Nafarroako Gobernuan subentzioa eskatzea proposatu zuen Aralarrek, *“baina beste taldeek kontra eman zuten botoa. Datozen aurrekontuetan, halere, espero dugu EAK gaia berraztertzea”*.



**Ramon ETXEBESTE
DONEZTEBE**

«Aparcaleku eta trafikoaren arazoa moldatu nahi dugu behingoz»

Neurri batean harridura eragin zion hauteskundeen emaitzak. Halere, kontuan hartu behar da 16 urte beteko dituela EAK Doneztebeko alkate-tzan, eta izatekotan, normaltzat jotzen du *“degastea”*. Dena den, hasieran *“nahiko oposizio gogorra”* egin omen du PNVk.

Egunerokoari erreparatu, ur eskasirena aipatu digu Ramonek. *“Mendaurkoa begiratzen ari gara, ur eskasia behingoz moldatzeko”*. Gainerakoan, karrikak hain tratuak ez egoteko, aparkalekuetan *“errotazio sistemaren bat”* jartzea aztertzen ari dira, eta Arkupeak-koekin ere *“zerbait begiratzen ari gara. Kasikastero bidai bat edo bi egiten dugu Iruñeratik”*. Egunero 4 ordu edo gehiago ematen dizkio Herriko Etxeko lanei, *“eta beharrik Jostexok eta Vicentek ere borondate handia duten”*. Hala ere, momentuz ez dute jorنالarendako subentzio eskaerarik tramitatu, *“bertze herrietan zer egiten duten aztertzen ari gara erabakia hartu aitzinetik”*.



**Imanol LEGARRETA
GOIZUETA**

«Taldea egiteko orduan herriko martxari begiratzen zaio gehien»

Duela hiru legealdikoa izan ezin, beti udal-talde bakarra egon da Goizuetako Udalean. Imanolen ustez *“herriko funtzionamenduari begiratzen zaio gehien, politikari baino gehiago. Ideen aldetik ere Goizuetan ez baita diferentzia nabarmenik”*.

Alkate eta zinegotzi guztiak estrenatu berriak dira Herriko Etxeko lanetan. *“Ahal den bezala aterrizatu eta ikasten ari gaituk... eta hala segitu beharko ere”*. Beste zenbait herritan ez bezala, Goizuetan ez dute dedikazioarengatik jorنالera kobratzea planteatzen. Bestalde, urtea bukatu baino lehen pistak moldatzen hastea nahiko lukete, eta gainerakoan, iralekuen komenioa egitea dute *“erronkarik handiena. Terreno handiak daude litigioan, eta horiek ahal den moduan argitu beharko dira. Lau urtetan bukatzen ez bada ere, bideratua utzi nahi genuke”*. Arau Subsidiario berrien tramitazioa ere bukatu nahi dute, jada aurreko udalak hasita zuen lana.



**Juan Fermin MITXELENA
LESAKA**

«Kultur Etxeak emanen digu lanik handiena hurrengo hiru urteetan»

Duela zortzi urte hautatu zuten zinegotzi eta hondarreko lau urteotan bera zen alkate-ordea. Beraz, udal lanetan eskarmentua izan arren, kargu berriaren mar-txa hartzea *“pixko bat gosta egiten”* dela aitortzen du, *“batez ere lehen berte batek eraman dituen kontuetaz jabetzea”*. Gainerakoan, urte hondarrerako espero dute babes ofizialeko etxebizitza berriak (27) adjudikatzea, eta hortik aitzinera, kultur etxeak eramanen du ardurarik handiena. *“Prisarik haundiena liburutegiak du, eta gero komentua moldatu, zentro zibikoa, musika eskola, museo... horiek denak hiru urtetan egiteko”*. Auditorioarekin zer egingen den definitiboki erabaki gabe dago oraingoz.

Luzerako begira, igerileku estaliaren proiektua ere *“garrantzi haundikoa da. Futbol zelaiarekin lotuz, konpleju oso bat egiteko aurreproiektua prestatua dugu. Orain proiektua egitea eta finantziarioak ikusten hasiko gara”*.



**Virginia ALEMAN
BAZTAN**

«Arras kontent nago ekipo langile eta erresponsablea dugulako»

Hauteskunde bu-ruzko iritzia galdetu diogunean, *“nik behintzat ez nuen espero holako emaitzarik”* erantzun digu Virgin-ak. Izan ere, duela 4 urte erdietsi zuten emaitzarekin konparatu, 722 botu gehiago (%39,4) irabazi baitu EAK joan den maiatzean *“inoiz lotu den emaitzarik hobere-na”*. Hala ere *“hauteskunde hauek ez direla normalak izan”* azpimarratu du segidan. Bertzalde, ekainaren lehen astean hasi, eta geroztik, *“batere baka-zionerik hartu gabe”* dedikazio osoarekin ari da lanean. *“Udaleko dinamika ongi antolatu, lan taldea martxan jarri, aurrerontuak onartu...”* Dena den, alkateaz gain bertze bi zinegotzi ere (Santi Alda-ko eta Remigio Liza-soain) egun erdiko dedikazioarekin ari dira lanean Baztango Udalarentzat, *“egun erdiarekin ofizialki subentzioei dagokionez, baina azkenean egun osoan aritzen dire”* zehaztu du. Kasik 8.000 biztanle eta 11,33 milioi euroko aurrekontua du Udalak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Argia aldizkariaren harpidetza

Ttipi-ttaparen ale honekin batera, ARGIA astelehenaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu.

Jakingo duzunez, ARGIA uda aurretik eraberritu zen. Itxuraz eta mamiz berri da: diseinu gaurkotuagoa, itxura gazteagoa, informazioaren antolaketa berritzailea... Iritzi saila ere zabalduta egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu bakarrekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei.

Berrikuntza hauek dirrela medio, ARGIA astelehenaren bere burua eza-

gutzerara emateko kanpaina bati ekin dio. ttipi-ttapak ere, ARGIA 3 astetaz doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi die bere irakurleei.

ARGIA eraberritua ezagutu nahi baldin baduzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Xabierrez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.

Argia.



TURANDOT

lagunak gara

lagun berriak egin eta ongi pasatu nahi duzu?

Afariak, asteburuak, ateraldiak eta abar antolatzen ditugu
Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako
Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Deitu 948 637 579ra

Argibide guztiak bidaliko dizkizugu inolako loturarik gabe

TURANDOT, Gipuzkoa eta Nafarroa



UDALBILTZA[®]

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSISEN BILTZARRA

UDALBILTZA[®]k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltza.info.com



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2003-09-01

«Landa etxera datorren bezeroak lasaitasuna bilatzen du gehien bat. Hemen giro oso lasaia da, ez da jende asko ikusten, kotxerik ere ez da ikusten, eta giroa eta ingurua benetan ederrak dira. Askotan den jendeak ez du sekulan zaldi bat ikusi, edo ez dakite gaztainak nondik heltzen diren, eta hemen zuhaitzean ikusten dituzte. Behin etortzen dena berriz ere etortzen da».

Sagrario GOÑI
Landa Etxeen lehendak.
D.Navarra 2003-09-01

«Gustuko dugun lan batetik bizi gara, eta hori zorte handia da. Nik pilotari izateko egin behar ditudan gauza gehienak gustura egiten ditut. Horregatik, ezin esan gogorra denik. Kirolari gehienek bizitza nahiko motza izaten da; pilotariak, gehienez 35-40 urtera arte ibiltzen dira, baina hori aurretik dakigu. Horregatik, ahal dugun bitartean ahal dugun guztia aprobetxatu behar dugu».

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
AIZU 2003ko iraila-urria

• 11 GALDERA LABUR •

Argazkian ageri denez, kirolzale amorratua zarela badakigu, baina zein da aritzeko gehien gustatzen zaiuzuna?

Palaz aritzea gustatzen zait gehien.

Eta ikusteko?

Herri kirolak hagituz gustora ikusten ditut.

Herriko bestetan egun bat aukeratu behar bazenu?

Bezpera eguna, koadrillarekin bazkaria izaten baitugu eta arratsean Biltokiko afaria.

Zer da zure ustez igantziko bestei falta zaiena?

Nere ustez dauden horretan ederki daude.

Ez al zenieke zerbait kenduko?

Sobranterik ere ez diot deus harrautzen.

Noiz aditu zenuen azkenekoz San Migel eguneko meza?

Ustez, 13 edo 14 urterekin egon nintzen azkenekoz mezan. Lan handiak izaten ditugu ordu horietan.

Igantziokoak kenduta, zein herritakoak dira zure ustez bestarik hobeenak?

Nere gustorako, Sanferminak.

Bestak pasatu ondotik, aukeran, ehizira ala Kanariasetara oporretan?

Ehizira joatea gustatzen zait, otorduengatik gehien bat, baina aukeran Kanariasetara gustorago.

Mc Donals batean afaria edo betiko jatetxean?

Betiko afare bat nahiago dut eta Herriko Etxean baldin bada hobe.



Sebastian ANT XOR DOKI
Igantzioko gaztea

Eta menua?

Hasteko paella eta ondotik filete kokor bat, ardo gorriarekin, noski.

Zer da zure ustez Igantzin egin beharko litzatekeen lehenbiziko lana?

Pilotalekua moldatu beharko litzatekeela iduritzen zait, euria ez sartzeko.

IRACHE
GRUPO TANATORIO TALDEA
MALDAERREKA, S.L.
Altzate, 19•948630786 •BERA

IRACHE
GRUPO TANATORIO TALDEA
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
☎ 948 637404
☎ 900 704704

LESKA
Image of a building facade.

TOKI ONA
Berako Udal Kirol kompleksua
Kirol Jarduerak, abonatuena tasak eta TOKI ONA Polikiroldegiko zein EZTEGARA Frontoiko alokairuak
2003 - 2004 KURTSOA
IZEN EMATEAK INFORMAZIOA
Irailaren 17tik 26ra TOKI ONA Polikiroldegian
☎ 11:00 - 13:00 / 17:00 - 19:00
Inskripzioen ordainketa
CAN: 2054 0115 88 9132962016
Kurtsoaren hastapena: urriaren 1ean
Infolocal012
Kirol Bulegoa948630215

LANA

Abuztuan 533 langabetuk izena emana zuten Doneztebeko INEMen

Langabeziak goiti egin du uda honetan eskualdean

ttipi-ttapa

Abuztu hondarrean 533 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, uztailean baino 11 gehiagok. Nafarroan ere goiti egin du langabeziak, aitzineko hilabeteen baino 92 lagun gehiago baitzeuden lanik gabe, 17.175 guzira.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 41 gizaseme eta 28 emakume eta 25 urtez goitiko 178 gizon eta 286 emakume zeuden langabezian abuztuan. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 295. Industrian 165 langabetu zeuden, eraikuntzan 36 eta nekazaritzan 3, aitzineatik lanik egin gabeko 34 langabetuekin batera.

Abuztuan 369 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 29 bertzerik ez ziren mugagabeak izan.

Historikoki langabeziak beheiti egin ohi du udan, batez ere sasoi-ko eta behin behineko



ARTXIBOKOA

Urte hasieratik beheiti egin du emakumeen langabeziak Nafarroan.

kontratuak medio. Baina uda honetan ez da halakorik gertatu, uztailean ere ekainean baino langabetu gehiago baitzeuden izena emanak bai Doneztebeko INEMen, baita Nafarroako bulegoetan orokorrean. Honela, Donezteben 506 langabetu zeuden ekainean eta 522 uztailean, eta Nafarroan, 16.720 ekainean eta 17.083 uztailean.

Jose Maria Roig Aldasoro, Nafarroako Gobernuko Lan saileko zuzendari nagusiak, halarre, garrantzia kendu dio langabeziaren igoera «arin» honi eta «*autogintza sektorearen geldaldi produktiboa kontratua hartuz, espero zitekeela*» adierazi du. Bertze zenbait datu azpimarratu zituen zuzendari nagusiak, egoera baikortasunez az-

tertuz. Hala nola, populazio aktiboaren %6,79 langabezian zegoen Nafarroan abuztuan, hilabete horretan azken zortzi urteetan izan den portzentairik baxuena eta emakumeen langabeziak nabarmen beheiti egin omen du urte honetan: «*urtarrilean 12.366 emakume zeuden lanik gabe Nafarroan eta abuztuan 11.034, %10,73a*».

HEZKUNTZA

Ikasturtea Sunbillako ikastetxean hasi zen ofizialki

Luis Campoy Zueco, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Sunbillako ikastetxe publikoan eman zion hasiera ikasturteari irailaren 9an.

Sunbillako ikastetxe publikoak 36 ikasle dauka Haur eta Lehen Hezkuntzako lau unitatetan banatuta. Haur Hezkuntza unitate bat dago 14 ikaslerekin: hiru urteko 6, lau urteko 2 eta bost urteko 6. Lehen Hezkuntzan, berriz, badira hiru eskola unitate, 22 ikasle biltzen dituztenak: 7 lehen mailan, 4 bigarrenen, 3 hirugarrenen, 3 laugarrenen eta 5 bosgarrenen.

Klaustroa lau irakasle tutorek osatzen dute, Mikel Mendibe zuzendaria barne, eta lauen artean ikasgai guztiak ematen dituzte, erlijioa, musika, soinketa eta ingelesa izan ezik.

© 948631076 • BERA

© 948630052 • Zalain • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK
Bera - Tfnoa: 948 618 715 - 407 406 781

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA s.l.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Zalain
jatetxea
© 2003 BERA • TEL: 948 63 79 47
Bera - Nafarroa

BERA

Bi taldek aurkeztu dute Mukixu haurtzaindegia kudeatzeko proiektua

Aurrematrikulazio epea bukatuta, 25 hurrek emana zuten izena

Amaia eta Ainhoa

Irailaren bigarren astean itzuli dira Berako haurrak eskolara baina 0-3 urte bitarteko haurrak ez dira seguraski urria erdialdera arte hasiko. Udal haurtzaindegian hasteko aurrematrikulazio epeak bukatu eta 25 hurrek izena eman zuten. Hasiera batean 36 haurrentzako lau gela edo unitate egotea espero zen. Kalkuluak aterata, Foru Dekretu baten arabera, gehienez 0-1 urte tartean 8 haur egon zitezkeen, 1-2 urte tartean 12 haur eta 2-3 urte bitartean 16 haur. Baina aurrematrikulazio kopurua ttikiagoa izan denez, 3 unitate edo gela egongo dira: 0-1 urte bitarteko 6 haur, 1-2 urte bitarteko 9 haur eta 2-3 urte bitarteko 10 haur. Hori horrela izanik plaza bakanteak gelditu dira, lehenengo tartean 3 plaza (7 orduz haurtzaindegian egoteko), bigarren tartean 3 plaza (7 ordukoak) eta hirugarren tartean 6 plaza (4 ordukoak). Plaza huts hauek betetzeko aukera izanen da irailan matrikulazioa egiten dene-



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Goyako eskaparatea saritu du Bertiz Partzuergo Turistikoak

Bertiz Partzuergo Turistikoak lehendabiziko aldiz eskaparate lehiaketa antolatu du eskualdean. Sarietako bat, Goyadendak eskuratu du, argazkian ageri den eskaparate berezi horrenagatik. Ikusten denez, kristaletik sartzen sen Estatu Batuetako misila irudikatzen du eskaparateak eta uda honetan harridura sortu du bertatik igaro direnen artean. Orijinaltasuna, bederen, ezin zaio ukatu!

an. Oraindik ez da finkatu matrikulazio eperik. Bertzetik, Mukixu haurtzaindegia kudeatzeko proposamenak egiteko epea bukatuta, bi taldek aurkeztu dituztela erran daiteke. Hilabete honetan bi proposamen hauek aztertuko dituzte. Administrazio boki aztertu dituzte eta azterketa tekniko

lruñean egingen da. Ondotik, Udalean bertan elkarrizketa egingen zaie taldekideei eta puntuazio altuena lortzen duen taldeak kudeatuko du haurtzaindegi berria. Obrei dagokionez, Navex Consultores enpresak laister bukatuko duela badirudi, azken ikutuak falta omen dira bakarrik. Eraikina

250m²koa da gutxi gorabehera eta haurren segurtasuna ziurtatzeko baldintzak betetzen ditu. Eraikuntzarako aurrekontua 400.969 eurokoa da eta ekipamendurako 62.569 eurokoa. Nafarroako Gobernuak aurrekontu hauen %60 eta %90a ordainduko ditu hurrenez hurren.

Irailaren 22an jakinen da zenbat udal hautesle-zerrenda dauden

Herriko Etxerako hauteskunde bereziak izan ziren aurtengoak Beran. Jakina denez, maiatzaren 25ean Udalen eta Nafarroako Parlamentuaren osaketa erabaki ziren baina Beran ez zen udal hauteskunderik izan. Beraiñez plataforma aurkeztu zuen zerrenda baina legez kanpo utzi zuten ez zen bozkatzeko aukerarik izan. Urriaren 26an egingen diren hauteskundetarako zerrenda berriak aurkezteko azken eguna irailaren 22a izanen da. Azkeneko eguna arte ezinezkoa da erabat ziurtatzea baina momentuz bi taldek aurkeztuko dute zerrenda: EAk zerrenda bat (oraindik zehaztu gabe dago zerrenda burua) eta Manuel Iriarte, alkate ohia, zerrenda buruzat duen talde independenteak bertzea. Aipatzekoa da EAJ/PNV eta EA alderdiek ez dutela zerrenda elkarrekin aterako. Bileretan murgilduta dabilta azken egunotan zerrendagaiak eta agian bertze talderen batek zerrenda aurkez dezake irailaren 22an.

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alzuri 
Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak
Tfnoa: 948 630 370
BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

LESAKA

Ekitaldiz gainezka egiten ari dira aurtengo Kultur Egunak

Larunbatean, Goringo taldearen antzezlanak izanen da ikusgai

Aitor AROTZENA

Astelehenean hasi ziren Lesakako Euskara Batzordeak, Udalaren laguntzaz antolatutako Kultur Egunak. Orduetik heldu den ortzegunera arte izanen da kultura-ekin edo kirolarekin lotutako ekitaldiren bat herrian. Astelehenean haurrentzako jolasak Beti Gazterekin eta asteartean haurrentzako tailerrak Kulkirekin izan ziren. Asteazkenean, «Euskal emakumea eta Lesaka» izeneko solasaldia eskaini zuen Jose Antonio Azpiakuz.

Ortzegunean, irailaren 18an, «Cihiroren bidaia» filmea eskainiko da 18:00etan Matxinbeltzanean.

Irailaren 19an, Tantiurairu dantza taldearen emanaldia izanen da plazan 20:30etan.

Larunbatean, Goringo taldearen «Kutsidazu bidea, Ixabel» antzezlanak ikusgai izanen da Zambran, 20:00etan. Sarrerak Kattun, Izarra okindegian eta Berako Errekalden salgai daude 5 eurotan.

Igandearen Lesakako Musika Bandak kontzertua eskainiko du Alhondigan, 13:00etan. Heldu den astea kirol



ARTXIBOKOA

«Ondarea zaindus» programaren barnean azkaindarrek egindako bisita itzulterako aukera izanen da larunbat honetan irailaren 20an. Azkainera joateko autobusa doan paratu du Udalak. Azkainen meza izanen da 19:00etan, gero berendua eta bisita gidatua, euskaraz eta frantsesez. Ekitaldiaren akabailan txalaparta eta Azkaingo ikastolak eskainitako talo jatea egiten da.

ekitaldiekin hasiko da. Astelehenean, 19:00etan, erremonte erakustaldia izanen da frontoian eta asteartean, ordu berean, paxaka erakustaldia Herriko Etxe-

ko arkupetan.

Asteazkenean, irailaren 24an, Irun eta Errenteriko musika ikastoleek emanaldia eskainiko dute Herriko Etxean 20:00etan.

Ortzegunean, azkenik, txotxongiloak izanen dira Herriko Etxean, 18:00etan. Taupada taldearen «Mari sorgin» lana izanen da ikusgai.

Guardiazibilaren jarrera eta ekintzak salatu dituzte EAJ-EA, Onin eta Herria Aitzinerak

Uda honetan guardiazibilak herrian izan duen jarrera eta gertakariak salatu ziren irailaren 3an egindako herri batzarran. EAJ-EA, Onin eta Herria Aitzinera plataformak deitua zuten herri batzarrak eta jende ugari bildu zen gertatutakoei buruz solasteko. Guar-

diazibilak miaketak egin ditu herriko zenbait ostatutan, «droga-aren bila» eta kontrolak ugaritu egin dira herri sarreratan. Larriena, halere, Xabier Terreros-i gertatu zitzaion. Gazte talde bat presoan aldeko pintada bat egiten ari zela, guardiazibila agertzerakoan al-

FLASH

Urruzuno saria herriko bi neskaentzat

Literatur sariak irabazten beterana dugu Saioa Rubio Iturria herritarra. Aurten ere Urruzuno literatur lehiaketan saria eskuratu du, baina ez bakarria, prosan nahiz poesian sariduna izan baita Hondarribiako institutuan ikasten duen lesakarra. Aipatzekoa da Euskal Herri osoko 596 idazlan aurkeztu direla lehiaketa honetan eta Saioa izan da bi arlotan saria irabazi duen bakarra. Horretaz gain, Irati Mañeru Igoak ere saria eskuratu du prosan. Zorionak bie!

Kalitatearen «Q» eskuratu du Atxaspik

Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuak (ICTE) kalitatearen «Q» eman zien uztailean Nafarroako hiru landa hotelari. Donamariako Benta eta Burgiko bertze hotel batekin batera, Atxaspik hotelak ere jaso du sari hori. Berriki, Cederna-Garalur erakundeak saria egiaztatzen duen plaka eman dio Jose Javier Igoa arduradunari.

de egin zuen. Baina guardiazibila bizikleta zoaien Xabieren gibelatik abiatu eta hau lurrera joan zen. Batzuen erranetan, Patrolok kolpatuta erori zen gaztea, baina guardiazibilak bera bakarrik erori zela erran zion alkateari. Kontuak kontu, ospitalera eraman behar izan zuten gaztea. Batzarrak «jazarpen zentzugabe eta neurrigabea» salatu zuen.

IRU BIDE
ZINEZTEA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zifiri
JATEZTEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Hiru haur berrirekin hasi dute Landagain eskolan ikasturte berria

Herrian barnako lau ibilbide antolatu dituzte Etxalarko landetxeek

Joseba eta Nerea

Joan dira udako egun sargoriak eta horrekin batera baita gehientsuonon oporrak ere. Horrela, iraila hastearrekin batera, herriko ttikiak beren motxilak prestatu dituzte berriz ere eskolara bueltatzeko. Ilusio eta gogoarekin batzuk, eta egun libre gehiago ez izateak ematen duen penarekin bertzeak. Gisa guzietako aurpegiak ikusi ziren joan den irailaren 9an Landagain eskolaren atarian. Izan ere, irakasleak lehenagotik ere prestatzen ari baldin baziren ere, joan den asteartean eman zioten hasiera etxalartarrek 2003-2004 kurtso berriari.

Hiru izan dira aurten eskolan hasi diren haurrak: Gure Itzalako Ainhoa Telletxea Iparragirre, Bazterretzeko Haritz Goienetxe Irazoki eta Irigoieneko Bordako Martxel Larraza Indaburu. Irakasleei dagokienez, joan den ur-



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

Kontent ageri ziren haur ezkontzako ttikiak lehenbiziko egunean.

teko gehienak hor segituko dute, bigarren ziklokoak izan ezik. Izan ere, Kontxexi Arangoaren ordezkari Joxe Mari Remiro beratarra egonen da.

Landetxeek antolatutako ibilbideak

“Hiruak Bat” Baztan-Malerreka Bidasoako landetxeen elkartean sartuak dauden Etxa-

larko landetxe guzietan elkarrekin, herrian barnako ibilbide batzuk antolatu dituzte. Joan den abendutik prestatzen ari ziren egitasmo hau uda honetan paratu dute martxan eta Arantxa Mikelostenak, ardura-dunetako batek, erran digunez harrera ona izan du turisten artean. «Egia da Etxalarrera datozen turista aunitz familiar etortzen direla eta

horiek ez dituztela mendiko ibilbideak egiten baina herrian markatu ditugun bidetan gustora ibiltzen dira. Udazkenean berriz, gazte-ko adrilak gehiago etortzen hasten dira eta pentsatzen dugu horiek mendiko ibilbidetan erraxago ibiliko direla».

Lau ibilbide markatu dituzte, bi ttiki herri inguruan, bertze bat Azkura eta bertze bat In-

FLASH

Urritzokietako bestak

Irailaren 21ean ospatuko dute Urritzokietako auzotarrek beren besta. Urtero gisan, Santa Krutz ermitan eginen den mezarekin hasiko dute eguna eta Saindu-neko Bordako zubian elkartuko dira eguerdian bazkaltzera. 80 lagun inguru biltzea espero da auzo-bazkarian eta arratsalde herriko trikitilariak alaituko dute afa-riari lekua utzi arte.

Nabarralderen hitzaldia Kultur Etxean

Irailaren 19an, ortzirala, Nabarralde hitzaldia eman du Kultur Etxean 20:00etatik aitzin. Nabarralde Nafarroako historia, kultura eta nortasuna ezagutzarazteko xedea duen egitura da eta beren helburua Nafar estatutuko herritarasuna berreskuratzea da eta ahalegin horrekin ari dira lanean. Honetan interesatuak eta Nabarralderen inguruko informazio gehiago jaso nahi dutenak aukera polita dute irailaren 19ko hitzaldian.

fernuko errotara. Azkenean bi hauen papereko argibiderik oraindik ez dute ateri baina denbora laburrean eginen dituzte.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS

zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut.

Tel: 948 631 342 BERA - Tel: 948 637 172 LESAKA

iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

HERRIKO

ISTATU - JATETxea

MANUEL TABERNA S.L. - BIDASOA K/82
Tel: 948 631 10 27

IGANTZI

Herria ezagutzuz

Berrogeita hamar haurrek hasi dute Igantzin ikasturte berria

Joxe Mari Goia XIII. Mendi-bizikleta Ibilaldiaren irabazle

Oskar TXOPERENA

Zenbaki borobila lortu du Igantziko eskolak haur kopuruari dagokionez, 50 baitira ekainera arte ikasketak Igantzin egiten dituzten haurrak, 18 Haur Hezkuntzan –lehen “ikastola” deitzen genuen taldean- eta gainekoak lehenbizikotik seigarren mailara arte banatuak. 2002-2003 ikasturtean 43 haur zeuden eskolan eta horietako hiruk hasi dute Bigarren Hezkuntza Berako Toki-Ona Institutuan. 3 urteko 10 haur berri sartu direnez, lehenago aipatu dugun 50 hurreko kopurua osatu da. Haur hasi berriak bosnako bi taldean banatu behar izan dituzte haserako egokitzapena aisago egin ahal izateko.

Bertzalde, mediku kontsulta Barazarreara eramaterakoan libre gelditutako gelei gutti falta zaie prest egoteko. Barranean egin beharreko lanik haundienak akautuak daude, baina az-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Eider, Jokin, David, Nerea, Andrea eta Naiara bezalaxe, herriko haur guziak hasiera eman diote ikasturte berriari. 6. maila bitartekoak herrian bertan hasi ziren irailaren 5ean, eta kokorragoak, Berako Toki-Ona Institutura doazenak, aste honetan berean, astelehenean. Oraindik goizetik bakarrik ari dira, baina besten ondotik hasiko dute egiazko lana.

ken ukituak falta zaizkigela berriei. Sarre-

ra karrika aldetik izan beharrean, sarrera be-



Bigarren urtez jarraian irabazi du Joxe Mari Goiak Igantziko Mendi Bizikleta Ibilaldia, eta garaipen honekin akabila ederra eman dio txirrindulari igantziarrak denboraldiari. Eguraldi euritsuarekin korritu zen XIII. Ibilaldia eta ibilbide lokaztuan ibili behar izan zuten partehartzaileak. Honek zenbait istripu gertarazi zuen -larritasunik gabekoak zoriez-, baina ez zen oztopo izan urteroko partehartze bikainarentzat. Ehun laguneko muga aisa gainditu zen, 115 lagunek eman baizuten izena.

rria egin eta gero, eskolako ataretik sartuko dira haurrak gela haue-tara.

Artzai-zakur Lehiaketa

Heldu den larunbatean, irailak 20, arratsaldeko 4,30etan izanen da urteroko lekuan, Meakandin, XXIV. Artzai-zakur Lehiaketa. Orain arte normalean igandearekin izaten zuen proba honek bere hitzordua, baina irailan artzaiek izaten duten egutegi estuak behartu du besta batzordea larunbatekin paratzera. Heldu den astean, berri- z, ortziralean, hasiko dira herriko bestak. Ongi pasa!



Arantza eta Igantzi

Elkarren ondoan dauden herri gehienetan gertatu izan den bezalaxe, liskar eta pleito aunitz izan dituzte Arantza eta Igantzik mendeetan zehar, bide eta mendiengatik gehienak, baina baita Latsa erreka- gora-beherak zirela medio ere.

Garai batean ahal zuten lekutik ateratzen zen bizimodua, eta nekazaritza eta abelzaintza janari-iturri nagusia baldin baziren ere, bazuen arrantzak ere bere garrantzia. Horretaz, 1775an Igantziko Herriko Etxeak bere ola eta errotaren presak moldatu, eta amorrain eta izokiak igotzeko bide egokirik ez zutela utzi ikusi zutenean, kexatu egin ziren arantzarrak. Arantza moldatzerik lortu ez zuten, pleitoan sartu behar izan zituzten, eta arantzarrak irabazi egin zuten. Ondorioz, bere gain hartu behar izan zituen Igantziko Herriko Etxeak moldaketak eta gastu guzikiak. Orduko kontu liburuetan: “Costas del pleito de arraibides: cinquenta y un reales por los gastos del pleito sobre el paso de la pesca”, eta liburu berean: “trescientos ochenta y un reales pagados a los oficiales, peones y boyateros en la composición del paso de la pesca”. Istorio politak, dudarik gabe.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Alberto RETEGI
abokatua
Alzate 17 • BERA • © 948 630 763

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Berecu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

MUEBLES A METS



LARUNBAT
ARRATSALDETAN
EREKIA

**Sarrera
BERAtik da**

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak

4000 m²

erakusketa

AUKERA HANDIAK



Urtebetetzeko eskaintza: 595 €



Urte guzian
ofertak
Kontsultatu
prezioak

BORTZIRIAK

Kafe-antzerkirako beka deialdia karrikaratu da

Bi mila euroko beka emanen zaio irabazleari

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Berako Udalak eta Etxalarako Udalak antolatutako kafe-antzerki bekarako deialdia karrikaratu da. Beka honetan euskaraz sortutako proiektuak lagunduko dira, inon argitaratuak edo plazaratuak izan ez direnak eta bertze bekarik edota saririk jaso ez dutenak. Bertze lanen baten itzulpenak edota moldaketak ere onartuko dira. Euskal

sortzaileei bultzada ematea eta gure herrietan formato txikiko lanak taularatzea dira beka honen xedeak.

Beka bakarria izanen da, 2.000 eurokoa. Beka bi zatitan ordainduko da: %50 epaimahaiaren erabakia ezagutu ondotik eta bertze %50 antzezlanaren lehen-dabizikoz taularatzean.

Egileen curriculumak aurkeztu beharko da eta, bertzetik, proiektuaren ezaugarri nagusiak bilduko dituen txos-

tena: egitura, luzera, estiloa, baldintza teknikoak, gidoia, helburua, baita egileei aipagarriak iruditzen zaizkion bertzelako ezaugarriak ere. Ez da beharrezkoa gidoiaren testu osoa entregatzea, nahikoa da 4 orrialdeko lagin batekin. Curriculumak eta txostenak 2004ko urtarrilaren 30 baino lehen aurkeztu beharko dira honako helbide honetan:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea/Herriko Plaza 7/ 31790 Arantza.



ARTXIBOKOA

Bekaren irabazleen emanaldi bana eman beharko dute Etxalar eta Beran.

Informazio gehiago 948 634125 telefonoan 948 634192 faxean edo bortziriak@euskalnet.net helbide elektronikoan. Epaimahaiak otsailean hartuko du erabakia eta ahalmena izanen du, egoki baderitzo, beka eman gabe uzteko.

Etxalarako eta Berako udalek eskubidea izanen dute saritutako lana bi aldiz taularatua

izan dadin deus ere ordaindu gabe saria jaso eta urtebeteko epean. Saridunak 15 eguneko epea izanen du beka onartzen duela adierazteko, eta antolakuntzak ezarritako epeetan lana estreinatzeko konpromisoa hartuko du. Horrela, beka jasotzen duen emanaldi bat Beran eta bertzea Etxalarren eskaini beharko du.

EUSKARAK BEHAR ZAITU
 ehaziozu zure denboraren zatitxo bat

MATRIKULA ZAITEZ EUSKALTEGIAN
 irailaren 30a baino lehen

Baztango AEK-948 452471
 Bortzirietako IKA-948 637796
 Leitzaldeko IKA-948 610776
 Malerreko IKA-948 451555

Antolatzaileak:





Laguntzailea:



Nafarroako Gobernua
 Hezkuntza eta Kultura Departamentua
 Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Hezkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusia

ARANTZA

Azkilarrea eta Aientsa auzoen arteko pista zolaberritzeko 163.000 euroko aurrekontua

Auzotarrak eta udalak bilera egin zuten gaiaz informazioa elkartrukatzeko

Nerea ALTZURI

Auzoetako zenbait pista zolaberritu behar direla eta, auzotarrak eta Udala Herriko Etxean bildu ziren irailaren 6an. Gaiak interesa piztu du eta horren erakusgarri izan zen bildutako herritar pila. Mol-datuko den pista zatirik handiena Azkilarrea eta Aientsa auzoen artekoa izanen da, 4.800 metro. Bide honetan galipota emanen da eta nekazaritza eta abelzaintza erabilera duenez, Nafarroako Gobernuak %60a ordainduko du. Vicente Arozena alkateak jakinarazi digunez, «*gelditzen denaren erdia udalak ordainduko du eta bertzea auzotarrak, duten lur kopuruaren arabera. Beti ere ordaintzeko erreztasunak*



ARTXIBOKOA

Pisten zolaberritzearen proiektuaz gain, herriko kontuak etxe guzietara bidaltzeko asmoa du Udalak.

emanen zaizkie, txandatan ordainduz eta horrela». Irailaren 6ko bilera, transparentzien

bidez zein pista moldatuko diren eta nolatu geldituko diren ikusi zen. Auzotar batek proiektua


etxeetara ere bidaltzea eskatu zuen eta akautua denean, horrelaxe egingen dela agindu zu-

ten udal agintariak. Herriko kontuak ere etxeetara igorriko direla jakinarazi du alkateak.

Azkilarrea eta Aientsa auzoetan, pista nagusiaz gain bertze zenbait bide ere moldatuko dira, baita Bordalarrea eta Eguzkialdean ere. Lanen aurrekontua 163.000 eurokoa da, lehengo 27 milioi pezetatik goiti. Udalak zuzenean hiru enpresari eskatu dio proiektua egingea. Batek ezezkoa eman du, bertzeak baiezkoa eta, hau idazterakoan, hirugarrenaren erantzunaren esperoan daude, aurrekontua konparatzeko eta lanak emateko.

Turismo bideak eta mendi lanak

Turismo bideak garbitzeko proiektua eta mendiko lanetan, mendiak garbitzeko, zerrak kendu eta berriren proiektua onez hartu ditu Nafarroako Gobernuak.

ALBERGIA JATETXEA

 © 948 634179
ARANTZA

GAZTANDEGIA

 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • **SUNBILLA**

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:
 • Astelehenetik ortziralerara, 9:00etatik 13:00etara
 • Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:
 ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

PIKABEA
 harategia • urdaitegia
 janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

BERTIZARANA

Edateko ur uherra dela eta kexu dira Oieregin

Horren arrazoia ikertzea eskatu du alkateak

ttipi-ttapa

Aste pare batez ur uherra izan dutela eta kexu azaldu dira Oieregiko bizilagunak. Jose Mari Galarregi Oieregiko kontzejuko alkateak adierazi duenez, «*albistean prentsan agertu eta bi egunetara ura garbi heldu zen berriz ere, susmagarri xamarra da hori*». Ura uherztearen arrazoia ikertzea eskatu du Galarregik.

Uda hasieran agertu zen lehen aldiz uherra Oieregiko iturrietan. Kolore xurixta zuen, egunen arabera aldatzen zena. Nafarroako Osasun Publiko Institutuak analisiak egin eta ura edateko modukoa zela jakinarazi zuen eta horrek herritarrak lasaitu

zitu. Hasiera batean, obraren batengatik izan zitekeela pentsatu zuten, baina herriko guztiak bisitatu ondok auzkerak hori baztertu zuten. Egoera luzatzen zela ikusita, Bertizko parakerako hornidura moztu behar izan zuten.

Jose Mari Galarregiren ustez, «*aferra serioa da. Ez gara horrela egoten ahal, ez dakigu zer pasatzen den, baina ikerketak egitea nahi dugu*». Bertze bistako arrazoirik ez denez, Oieregi inguruko mendietan dauden lezeetako batetik ur-biltegiara zerbait isuri ahal izan dela pentsatzen dute.

Oieregik Zeberia errekaaren eskuinaldean dagoen iturri batetik hartzen du ura, Baztanetik.

84.000 litroko edukiera duen ur-biltegia Oronoz-Mugairiko zentralaren ondoan dago.

Irache Kontsumitzaile elkarteak bulegoa

Irailaren 23tik aitzinera Irache Kontsumitzaileen Elkarteak Oieregi, Narbarte eta Legasako kontsumitzaileen kexak eta kontsultak aztertuko ditu, Bertizaranako udalak jarriko duen bulegoan. Bertako bizilagunek debalde izanen dute zerbitzu hau hilean behin, hilabete bako laugarren asteartean, 10:00etatik 13:00etara, Bertizaranako Udalak ordainduko baitu. Mikel Bezunartea izanen da bulegoko arduradua.



ARTXIBOKOIA

Andres Etxenike, Bertizaranako alkatea da Bertizko Turismo Partzuergoko lehendakari berria. Severiano Txoperena Lesakako zinegotziak utzitako kargua hartu zuen Etxenikek, Partzuergoak egindako batzar nagusian. Parthehartze handia izan zen batzar horretan, hamasei udaleko ordezkariak gain, elkarte ezberdinetako partaideak bildu baitziren Bertizen.

na. Kontsumitzailea gehien arduratzen duten gaiak kudeatuko ditu bulego berriak, etxebizitza, aseguruak, ban-

ku eta aurrezki kutxak, komertzioa, zerbitzuak, bidaiak, herentziak, ibilgailuak eta bertze hainbat.

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

URROTZ

Sanmigel bestak irailaren 26tik 30era ospatuko dira

Mindegia-Larretxea, Nazabal-Arrospideren kontra ariko dira igandean

Ortzirala 26

20:00etan altxaferoa eta ezkilak bestari hasiera emateko.

20:30etan Zopak eta txuri-beltxa herriko ostatuan.

Gauetz dantzaldia JALISCO BAND taldearekin.

Larunbata 27

8:00etan gazteak retirada.

10:00etan mus txapelketaren hasiera.

12:00etan pilota partiduak: umeak eta beterranoak.

17:00etan haur jokoak eta txokolatada beroa.

20:00etan pilota partiduak: kadeteak.

Gauetz dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Igandea 28

9:00etan alkolemi kontrola eta gehien ematen duenak gosaria debalde.

10:00etan mus txapelketaren bukaera.

13:00etan aizkora apostua: Mindegia eta Larretxea, Nazabal eta



ARGAZKIAK: MARI JOSE LARRAIOZEK UTZIAK

Bistan denez, aizkora apostuek badituzte urte batzuk Urrozko bestetan. Goitian, Donato Larretxea, aurtien ere Sanmigeletan izanen den aizkolaria.

Arrospideren kontra. **17:00etan** haurrentzat Gaztelu Haizatuak eta karts.

Arratsaldez eta gauetz AGERRALDE. soinulariarekin dantzaldia.

Astelehena 29

San Migel Eguna

11:30etan Meza Nagusia. Meza ondoren hamaketakoa herriko ostatuan.

13:30etan herriko gazteen artean herri kirolak.

17:00etan Gorriti eta bere animaliak.

Arratsaldez eta gauetz JOXE ANGEL soinularia.

Asteartea 30

14:00etan herri bazkaria Angel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbio bertsolariekin. Bazkal ondoren sokatira, txingak eta gauetz gehiago: Ezkonduak ezkongabeen aurka. Iluntzean xingarjatea. **Arratsaldez eta gauetz** JOXE ANGEL soinularia. **Goizaldera** Gaixoa Nilanera joan behar etzi!



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

URROZKO HERRIKOOSTATUA

San Migel Karrika • © 948 451920
Ongi pasa bestak!

PATXIKU

garraio - eskabazioak Tel. 670 974025



DONEZTEBE

Besta ttikiak irailleko azken asteburuan ospatuko dira

Herri sarreran abiadura moteltzeko gomak jarriko ditu Udalak

ttipi-ttapa

Irailaren 26an, ortzira leaen botako dute txupinazoa eta txaranga ibiliko da karrikaz karrika. Gauzez Merkatu Plazan More, Saiak eta Ekon-4 taldeek kontzertua emanen dute. Larunbat goizean haurrentako pintura tailerrak eta erakusketak eta arratsaldean herriko kirolak haurrentzako. Iluntzean, ajoarriero eta patata tortilla lehiaketa izanen da, eta horrekin gauzez aforia. Herriko Etxeak ardoa eta kafea jarriko ditu. Eguraldi ona baldin bada Santa Luzia Plazan, eta bertzenaz, han ondoan erretiratuek duten lokalean. Musika Onofre akordiolariarekin. Igande goizean meza San Miguel baselizan. Hameketakoa ere eskainiko da. Segidan, lehen dantzari izandakoek dantzatzeko dute. Arratsaldea animatzeko karriketan buruhandiak ibiliko dira eta Santa Luzia Plazan musika.



ARTXIBOKOA

Zirkulazio arazoak moldatzeko, aparkalekuen sistema antolatu nahi du Udalak ahalik eta azkarren.

Herriko sarreran abiadura moteltzeko gomak errepidean

Doneztebeko sarreran, Elgorriaga aldetik batez ere, ibilgailuak abiadura handian ibiltzen direla-eta, zolean gomazko xafiak jarriko ditu Doneztebeko Udalak. Ramon Etxebeste alkateak adierazi duenez, «autoen abiadura-

rekin arrisku handiko egoerak sortzen dira» eta breazkoen aldean, «gomazkoak jarri eta kentzeko aukera ematen dute».

Karrikak libreago uzteko soluzioak aztertzen

Zirkulazio arazoak moldatzeko, aparkalekuen sistema antolatu nahi du Udalak ahalik

eta azkarren. «Berez, bada leku nahikoa. Kontua da erreka bertze aldean dela, eta autoa egun osoz utzi behar duenarentzat, ez da arazo handia borondate pixka batekin». Eta horrekin batera, Bordatxoko aparkalekuak markatzea ere adostu du Udalak lurraren jabearekin. Gainerakoan, herriaren erdian karriketako espaloietan pi-

FLASH

Ur biltegi berria

Hurrengo Hirurteko Planean, ur deposito berri batendako proiektua sartu nahi du udalak. Oraingo depositoak 1,3 milioi litroko kapazitatea baldin bada ere, «edozein arazo sortzen denean arras mugatua gelditzen da, urik sartu gabe 18 ordu dena hustutzen baita». Afera honetaz hitzegiteko, dagoeneko zenbait bilerak egin dituzte Alberto Catalan Nafarroako Gobernu kontseilariarekin.

Gaupasa irailaren 20an

Besta ttikiak astebete beranduago izanen bada ere, larunbat honetan ere gaupasa antolatu dute Irrintzi, El Cafe, Titi, Bixen, Belarra, Shanti, 12 eta Ameztia ostatuek.

loteak jarri nahi dira «karrikak libre gelditzeko eta autoak ez aparkatzeko».

Santa Luzia plazan eta bertze karrikaren batean OTA gisako sistemaren bat jartzerik ere ote den aztertzen ari dira Herriko Etxean, «ordaindu gabe, baina denbora mugatu batean aparkatzeko eskubidearekin, ordu bat edo bi gehienez».

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

ALFONBRAK SALMENTA

PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa


Bittoria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

UDAZKEN-NEGUKO JOERAK
2003 -2004



moda

geh *ria*





Zapatadonda
Kaiotxu.
Osagarriak
Konponketak.

Ingla 47 Bera 21700 Balarra 948 627216



Bidasoa 8
BERA
☎ 948 630753

**OPTIKO
OPTOMETRISTA**

3 urtetik goitiko
haurren errebisia

**Ostargi
Optika**

MODA PREMAMA

Serapio Mujika, 14
☎ 943 615886
20302 IRUN



HAURDUN ZAUDE?

Zatoz!

eder jartzeko behar duzun guztia daukagu



- Puntuak aukera zabala
- Osagarriak
- Diziaik

temporadako
arropelan
sukeraz zabala

Santiago 88 • ELIZONDO
☎ 948 580939

Kalkulatu zure
arropa berezia

udazken neguko joerak

OINETAKOAK

Udazken-neguko denboraldian oinetako aukera zabala aurkituko dugu. Bota altuek zein bajuek, punta luzekoak izaten segituko dute, batzu takoin finekoak eta bertzeak «campera» estilokoak izanen direlarik. Uda-berri-uda denboraldiko ezaugarri batzu ere mantenduko dira. Hala nola, zintzilikaturiko apainketak eta zapata belarridunak (*hebillarekin*) jantziko dira. Koloreei dagokienez, tonu ezberdineko marroiak, beltza eta «burdeos» koloreak, garrantzitsuenen artean aurkituko ditugu. Zahar-turik edo mazarzutako larruak ikusten ahalko ditugu, eta buelta emandako larrua ere bueltatuko da. Zapata borobilduak eta zola bajukoak ere azpimarratzekoak dira. Plantilla leunekoak eta larru bigunekoak izanen dira, erosotasunaren eta lasaitasunaren ideia oinarri dutela. Plataformak ez dira hainbeste ikusiko datorren denboraldian, modak zola finak eramatera bultzatuko baitu. Beti ere lasaitasun ideiarekin lotuta, takoi laukidunak eta zabalera berezikoak aipatu behar ditugu.

Gizonezkoentzako oinetakoak larru bigunekoak izanen dira nagusiki, marroi edo beltz kolorekoak. Erosotasunaren ideiarekin jarraituz, erraz jantzen den oinetakoa, eta baita punta luzatua duen oinetakoa jantziko da. Jende askok alderantzizkoa pentsatzen badu ere, punta luzeko oinetakoak pentsa daitekeena baino erosoagoak dira.

Umeentzako moda koloretsua eta erosoa izanen da, konbinazio deigarriek garrantzia izanen dutelarik.

Etxeko zapatilak arinak eta beroak izanen dira, neguaren bisita lasai hartzeko, eta kolore alaietako marrazkiak itsatsiak izanen dituzte.

Osagarrietan, boltsoek oinetakoen joera bera segituko dute: lauki eta angeluzuzeneko boltsoak, apaingarriz hornituak eta marroi eta beltz kolorekoak izanen dira, eta tamaina ezberdinak aurkituko ditugu bakoitzaren gustuen arabera. Artilezko bufandak azpimarratu behar ditugu, baina ezin ditugu ahantzi fularrak, lepoko zapi ttikiak, eta artilezko pontxoak, es-



Adela Arlegi (KALOTKA-BERA)

Berriz ere

Ikasturte berria ailegatzearekin, haurrek bere jantziak berritu beharrean daude, eroso eta gainera sendoa den arroparekin... beti ere modan egoteari uko egin gabe. Haurren armairua arropa praktikoarekin, baina aldi berean helduendako moda estilo guzian segitzen duen arroparekin beteko da. Modako markek, ttikienen premien jakitun izaki, ehun goxoak eta erabiltzeko erraxak dituzten kolekzioak sortu dituzte: Panna, puntua edo denim izeneko ehunak erabiliko dira baina, erran bezala, helduendako arroparen azken jorei moldatutakoa. «Neohippie» inspirazioa, «vintage» eragina eta «look» bakeroa haurren modara bilduko dira udazken hone-

tan eta osagarriek ere inoiz baino protagonismo handiagoa hartuko dute. Artile lodiko bufandak eta adorno eta detaile bordatuak dituzten gerriko berriak, betiko motxilekin elkaertuko dira. Oinetakoak, leku guzietarako baliko dutenak izanen dira, ttikienek erosotasunik galdu gabe, estiloarekin jantzi dezaten. H&M marka suediarrek, erraterako, arropa eta ehun eskaintza zabala izanen du denboraldi honetan, haur bakoizak bere estilo propioa sortu ahal izateko. Bertze zenbait etxek, eragin tejano edo bakeroko kolekzioak aurkeztu dituzte, puntuzko arropa beroekin konbinatuta. Arropa klasi-koenak Pilo Carrera marka bezalako eskutik dator.

«Haurren armarioa arropa praktikoaz beteko da, baina helduen modaren estilo guzian mantenduz»



Ibarrola
Haurrendako
arropa
0-14 urte

Parrokia 6
DONEZTEBE
Tfnua: 948 450 463



ARRIET 0-18 URTE
haur eta partetxerako arropak ARTEKONIZAI
Logia. 45 • BERA • ☎ 948 630650

Negu honetan
zatoz
Ostizera



Parrokia, 17 • DONEZTEBE
948 450 289

Publizitatea prentsan,
irratian eta
telebistan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA



LIBURUAK



ALDIZKARIAK

BUZOIRATZEKOAK



FOILETOAK

Trailak 20
Larunbata

16:30etan XXIV. Artzain Zakur lehiaketa Mea-kaundiko zelaian.

Trailak 26
Ortzirala

17:00etan Mus eta Parxis txapelketa. **20:00etan** Altxaferoa eta ezkil jotzea TXA-KAIN txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik herri buelta Kankailu eta Buruhaundiekin. **0:30etatik aitzine-
ra** Dantzaldia IRATS taldearekin.

Trailak 27
Larunbata

9:00etan Gosaria Ziobi mendian. **9:30etan** Plater Tiraketa. **10:00etan** Karrika buelta txistulariekin. **10:30etan** Pilota partidak. Herriko haurren txapelketaren finala. **17:00etan** betizuak. **19:00etan** Herri Kirolak:
- Nafarroako koxkor biltzaileen txapelketaren finala.
- Igantzikoko gazteen herri kirol erakustaldia. **21:00etatik 22:00etara** eta **0:00etatik aitzine-
ra** Dantzaldia IRATS taldearekin. Txakain txaranga arituko da gauez.

Trailak 28
Igandea

Ezkonduen Eguna
11:30etan Kankailu eta Buruhaundiak Gaiteroekin. **12:30etan** Aero-modelismoa. **17:00etan** Bertso Pilota (Peñagarikano eta Irazu). **19:00etan** Betizuak. **21:00etatik 22:00etara** eta **0:00etatik aitzine-
ra** Dantzaldia KIKI BOR-DATXO taldearekin. Tar-tean herriko dantzak.



Trailak 29
Astelehena

San Migel Eguna
11:00etan Karrika buelta, herriko txistulari eta dantzariekin. **11:30etan** Meza Nagusia herriko Abesbatzak kantatua. **12:30etan** Dantza Lu-zia. **18:00etan** Pilota partidak:
• nfantilak: Goienetxe-Barberena; Mitxelena-Madariaga.
**Aparrarekin ezin hobe pasatu zuten iaz gazte-
txoek.**



**ESKAILEREN
FABRIKAZIOA
eta KOLOKAZIOA**

Material motak:

- Haritza
- Sapelly
- Iroko
- Elondo
- Pinua



Ventas Auzoa 27 (Landetxa) • 20305 IRUN

Tel: 943 628171 • Faxe: 943 632660 • e-mail: hoppe@euskalnet.net

BERRIKUNTZA

- **Multimedia bidezko teorika**
- **Entzute bidezko teorika (CD, kasetta)**
- **Teorika klase partikularrak**
- **Atzeritarrei egokitutako teorika klaseak (nazionalitatearen arabera)**



☎ 948 630 800 • Legia 42 • BERA

Gustuko zerbait aurkitzen dugunean zurekin konpartitu nahi dugu



BERRIZUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzikoko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313



JOSE AGERRE
PINTURA LANAK

- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Moketa eta zintasol

☎ 610 22 15 28 • 948 638144 • **IGANTZIKO BENTAK**

Besta ederrak pasa!



TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

**Gas-olioa etxez etxe banatzen da
Kotxe berri eta zaharren sosalmenta**

Tel. 948 637 460 31770 Lesaka (NAVARRA)

DESGUACES



- Istripua izan duten ibilgailuak erosten ditugu
- Harrapatzeko zailak diren piezak
- Repuestoak

☎ 608 876 456 • 948 637 552
Lesaka-Igantzi errepeidea, 2 km. • **IGANTZI**



JATETXEA
KARRIKA NAGUSIA

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 948 63 72 90 • **IGANTZI**

• Helduak: Irazoki-Re-tegi; Zubieta-Tirapu.
20:00etan Dantza saioa. **0:00etatik aitzinera** Dantzaldia TRIKI-DANTZ taldearekin.

Irailak 30
Asteartea
Haurren Eguna
Egun guzian Hurrentzat Jokoak eta Gaztelu haizatuak izanen dira.

11:00etan Karrika buelta Kankailu eta Buruandiekien.

12:30etan Motozerra-rekin erakustaldia.

14:00etan Herri Bazkaria. Andoni EGAÑA eta Sebastian LIZASO bertolariekin.

19:00etan Herri Poteoa txarangarekin eta ondotik aparra.

0:00etatik aitzinera Dantzaldia TRIKI-DANTZ taldearekin.

Igantzikoko
Harrobia

☎ 948 637288

*Besta
ederrak
pasa!*




IGANTZI

**OSTATUA
JATETXEA
HOSTALA**

Ongi pasatu bestak!

Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Irailaren 26an botako den txupinazotik hasita, ederki pasatzeko modua izanen dute igantziarrek: dantzak, herri bazkaria, haurrei zuzendutako eguna eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira.



ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzikoko Bentak
☎ 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiaik.
- Mantenu rodilloak.

Jose Canabal

Instalazio elektrikoak orokorrean

ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK

☎ 666 57 58 99 - 948 637 541
IGANTZI

BI-BIDE

ostatu janaridenda

BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 948 63 72 78
IGANTZI


IGANTZI

ESTEGI - INIM TEGI

St. n, n b h n

St. k

Ezt r Z h E N
T l- F x 3 15 21



OKILA

Zurgindegia

Tarimak, atek, leihoak, eskailerak...
Obretako lanak orokorrean

Lander Sein - Mikel Arburua

Piedade gaina zlg • 31790 Igantzi

☎ 948 637 249

SEGIROS LAGUN ARON ASEGURILIAK


Klase guzietako aseguruak herrian bertan!

Oskar Txoperena Baratzondo 1
IGANTZI

Tel.Faxa: 948 637236
Mug.: 610 507579




Hizkuntz Eskola Elduaïen



1996.
urteko
zerbitzu
onenaren
aitzindari

*Zurekin gara berriro
Matrikula epea: Iraila
Mugi zaitetz ordua hartzeko:
Lehenengoek lehentasuna dute*



- **Euskara** • **Alemana**
- **Ingelesa** • **Gaztelera**
- **Frantsesa** • **Italiera**

elduaïen@elduaïen.com

☎ 948 510 635 • 615 894802
Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

☎ 943 670 052
Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA

☎ 943 674 733
Kondeko aldapa - 30. • TOLOSA

☎ 943 310 753
DONOSTIA



*Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei*

ITUREN

Joaldunen Eguna ospatuko da irailaren 20an

Larretxea eta Olasagastiren arteko apostua izanen da

Iban ISASI

Larunbat honetan, irailak 20, ospatuko da Iturenen Joaldunen Eguna. Azken urteotan egun hau ospatzeko ohitura hartu da herrian eta beti bezala, goizeko 10:00etan joaldunak eta trikitilariak Ameztia abiatuko dira baserrietara bisita egitera. Ordubete beranduagio joaldun ttikiek herrian barrena itzulia eginen dute, txarangaren laguntzarekin.

13:30ak aldera, joaldunak Ameztatik herri-ira itzuliko dira eta bertan buelta bat emanen dute. Plazan, aizkora apostu bikaina izanen da eguerdi alde horretan: Larretxea eta Olasagasti nor baino nor arituko dira.

Bazkaria udaletxeko ganbaran izanen da eta txartelak 24 eurotan salgai daude Bereau jana-ridenda eta eta Ariztegi harategia. Bazkal aitzin eta ondotik Igor Elorza

eta Jexux Mari Irazu bertsolariak ariko dira.

Arratsalde eta gauze dantzaldia izanen da Herriko Etxeko arkupe-tan, hau idazterakoan oraindik zehaztu gabe dagoen talde batekin. Egun ederra izanen da, duikabe!

ARTXIBOKOA


Goizean Ameztian barrena itzulia egin ondotik, eguerdi aldera herrira bueltatuko dira joaldunak.



Gaupasa Donezteben Irailaren 20an

Etorri eta ongi pasatuko duzu!

Antolatzaileak eta laguntzaileak:
Irrintzi, El Cafe, Titi, Bixen, Belarra,
Shanti, 12 eta Ameztia ostatuak





PELUAGA

Moda eta osagarriak

Colon Pasealekua 7
20302 IRUN
Tel-Fax: 943 622816



FANTXIKE

Mertzena - Opanak - Lentzenia
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia 15. ELIZONDO - Tfnoa: 948 580 312



HONORIO TABERNA

Gizaseme
eta
Emakumeendako
Boutique

Tfnoa: 948 450 109
Merkatarien kanika 29
DONEZTEBE



Martzutzak

Estreogara 12 - BERA

Tfnoa: 948 631 425

Datozen

Denboraldi honetan gure erakustokiak 50., 60. eta 80. hamarkada arteko garaietako kutsua duten jantzi eta osagarriez beteko dira. Retro epidemia iritsi da korte, kolore eta estanpatuek garai haietako kutsua izanen dutelarik.

60. hamarkadako joera dibertigarri eta sikodelikoa batez ere kamixetetan nabarmenduko da, irudi geometrikoak bihotz, lore edota marra desberdinekin nahasten direlako. Arropa zati bakar bat ere ez da egonen estanpaturik gabe. Kolore biziak, berde argia bezalakoak, beltza edo marroiarekin, kolore ilunagoekin hagitz ongi konbinatzen dute. Gainera jantzi berean ehun desberdinak nahasiko dira (kotoia, artilea, likra).

Eskola garaiko uniformeak oroitaraziko dizkiguten karratu eskoziarrak ikusiko ditugu gona, galtza eta bertze osagarrietan, txanoetan bertzeak bertze. Beroki, zamarra eta pitxiak tweed, ingeles oihala eta buruska antza duten ehunekin eginak datoz. Beroki eta zamarrak 60. Hamarkadako kutsua dute, "Beatles" en estilokoak: botoi haundiak eta bi lerrota josiak.

Pana, franela eta melokotoi ehunek erosotasuna emanen diete galtzei. Aipatzekoa da gainera galtzek ez dutela araurik segituko korteari dagoenez, hagitz desberdinak dira: galtza oso zabalak, estuak kanpanarekin, "pitillo" deitzen direnak, bota altuekin eramateko "piratak", azpikaldean kremailera eta mauskamuturrak dituztenak, militar itsurako sakelak dituztenak...

Gonak ere ikusiko ditugu denboraldi berri honetan: aldakak nabarmentzen dituztenak, gerrian estuak direnak edota galtzerdi lodi eta bota altuekin eramango diren minigona

Marian Urra (MARTZUTZAK-BERA)



«Arropa zati bakar
estanpatu gabe e

tabladunak. Gonak kalentadore eta galtzerdi luzeekin ikusiko ditugu.

Artile eta ehun beroekin egindako jertse eta txaketak lepo handiarekin agertzen dira neguko hotz gogorrez babesteko. Koloreei dago-kionez, aukera zabala dago eta hauek degradean edo difuminatuz doaz. Jende guziari ez doazkio kolore berak edo ez zaizkio berak gustatzen. Hala ere marroiak, lur koloreak, oli-bak, berenjenak... nabarmenduko dira. Gainera koloreak aunitz nahasiko dira: kolore marroixkak horiarekin, horixkarekin, urdin elektrikoarekin... Erabat beltzez edo xuri eta grixarekin jantzita ez gara atzean geldituko, puri purian dago oraindik beltza.

Punk joerako jantziak izanen dira baita ere: kateak, larrua, pintxoak, metalak.... guzti hauek arropa beltzarekin.

Bisuteria

Jantzietan aipatu punk joera hori kate itsurako lepoko handietan nabari da. Hauek gainera batzutan bi funtzio izanen dituzte: lepokoarena eta gerrikoarena. Kate itsurako lepoko, eskumuturreko eta belarritakoak konbinatzen ahal dira. Eskumuturrekoak handiagoak dira eta besokoetan metala eta larrua nahasiko dira. Koloreak berrituko dira, orain zilar zaharra, brontzea eta kobrea erabiliko dira, bakoitza bere aldetik edo pieza berean nahasita. Udan hain present egon diren maskor eta nakareak gurekin jarraituko dute larruzko sokekin batera. Larrua erabiliko da medailoi handiak zintzilikatzeko eta honek pieza agitz landu eta ikusgarri kontrastea ematen die. Jende guztiak aurkituko du eroso sentiaraziko dion arropa. Jantziak, osagarriak eta koloreak nahasiz itsura pertsonalizatzeko aukera handia dago.



Serapio Mugika, 11 · 20302 IRUN · Tfnoa: 943 61 26 26



ZAPATADENDA

Arretxea 20, behea • LESAKA • 948 637 594

Larunbat arratsaldetan irekia
Konponketak • Osagarriak



Bicentris
Arropa
Opariak

KAPRITXO

948 510994
LEITZA

ar bat ere ez da egonen
eta jantzi berean ehun



Xehetasunak

Arropa aunitzetan xehetasun edo detaile ttikia somatuko dira, aunitzetan arropa bat bertzetik desberdinduko dutenak: botoi handiak, listoiak, gaizki bukatutako arropak, zulatuak edo hari solteak dituztenak, smok, gasa eta lentejuekin, ongi lixatu gabeak...



PIKABEA mujer

Emakumeendako moda
Udazken-neguko koleksioa

Regate 5 (Luisen) antonin
948 451277 • DONOSTIA

KULTURA

"Iraultza" pelikula izan da Bidasoako Filme Laburren VI. Zinemaldiko filme irabazlea

Irailaren 10ean egin zen Lesakako Zambra aretoan sari banaketa

Joseba OLAGARAI

Bertizko Turismo Partzuergoak seigarren aldiz antolatu duen Bidasoako Filme Laburren Zinemaldiko sariak jogan den irailaren 10ean, 19:30etatik aitzin eman ziren Lesakako Zambra aretoan.

Ekitaldia Jon Abril eta Mari Jose Garmendiak aurkeztu zuten, Baztango aktore koadrila baten "esketxez" launduta. Bertan izan ziren zine munduko hainbat pertsona ospetsu, hala nola Adriana Ozores, Maria Isasi eta Martin Rosette. Baita Cristina Arcaya Turismo zuzendaria, eskualdeko alkate eta zinegotziak eta laguntza eman duten hainbat komertziozako ordezkariak ere. Hiru ordu inguru iraun zuen ekitaldia erritmo eta bixitasun haundikoa izan zen eta filme irabazle guztiak ikusteko aukera izan zuen bertara bildutakoek.

Antolakuntzak hagitx balorazio positiboa egin zuen eta Severiano Txoperena kideetako batek adierazi zigunez «*arront gustura gaude bai Elizondo, Doneztebe, Bera eta Hendaian egin ditugun emanaldietara agertu den ikusle kopuruarekin, baita zinemaldia aurkeztutako filmenen jatorri desberdin eta kalitate onarekin. Aurtengoan 63 filme aurkeztu dira eta sei urteotako partehartzerik handiena izan da. Dударik gabe, Zinemaldia indartzen ari den sei-*



Urrezko iratzea eta 3.000 euro jaso zituen laburmetrai onenak.

nale da filme kopuru hau».

Urrezko iratzea "Iraultza" filmearentzat

Martin Rosetten "Iraultza" filme laburrak lortu zuen urrezko iratzea eta 3000 euroko diru-saria. Zilarrezko iratzea eta 1500 euroko saria berriz, Ivan Sainz-Pardoren "Simonen Labirintoa"rentzat izan zen, iaz urrezko iratzea irabazi zuen zuzendari bera. Horietaz gain, bertze bortsari ere eman zituzten. Gai naturalistikoak, ekologikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen dituen filmeari ematen zaion brontzezko iratzea eta 1000 euroak Safy Nebbouk zuzendutako "Lepokoa" laburrarentzat izan zen. Brontzezko iratzea eta 1000 eu-

ro pake eta giza baloreak modurik hoberean lantzen dituen filmearentzat, Luis Deltellen "Erran zerbait" filmearentzat. Brontzezko iratzea eta 1000 euro, Akitania, Euskal Autonomi Komunitatea, Nafarroa edo bertako egile batek eginiko filme hoberearentzat "Terminal" filmearentzat. Aitzol Aramaio zuzendariarena. Brontzezko iratzea eta 1000 euro aktore hobereanari Adriana Ozoresentzat, "Galduak" filmean eginiko antzezpenagatik. 2003ko aktore hobereanari aipamen berezia Lola Herrera, Carme Elias eta Maria Isasientzat, "Sinfonia nahasia" filmeko antzezpenagatik.

Irailaren 16an izan zen, Iruñiako Sade-Olite zinean, saritutako filmak ikusteko azkeneko aukera.



ARTXIBOKOA

ZUGARRAMURDI



Aitatxi-amatxien eguna arrakastaz ospatu zen herrian

380 lagun bildu ziren bazkaltzera

Margari eta Koro

Arrakasta handia izan zuen "Arkupeak" Zugarramurdin antolatu zuen "aitatxi-amatxien eguna". Uztailaren 26an 380 lagun bildu ziren frontoneko mahaien inguruan.

Bazkari hunek izan zuen berezitasuna (eta nola ez Zugarramurdin!) menuan zikiroa zego-

la izan zen. Goizeko 8:30etarako erretzailerek sua piztua zuten bide bazterrean, eta goiz osoan horixe izan zen espektakula: zikiroa erretzen ikustea.

Pilota txapelketa

Udako pilota txapelketa ere ederki burutu zen eta hauek izan zi-

ren txapelak: Gomaz emakumeetan: Birji eta Maider; gizonezkoetan: Beñat eta Philippe; Laruzkoan: Xabier eta Kaiet.

Idortea

Alde guztietan bezalaxe hemen ere euri eskasia sumatu da, batez ere belategiak gorritu direlako ez da leze gaine-

ko arbola aunitz igartu direlako. Etxeetako ura egun pare batez moztu behar izan zen gauez eta Uraundiko errekatik zisternaz depositora karriatu zen, baina berzenaz ez da arazo gehiagorik izan.

Berria harpidetza

Dugun euskarazko egunkari bakarra lagundu nahian "Akelarre Elkarteak" "BERRIA" egunkariako harpidetza egin du. Akelarreneart gateko ohiturarik ez denez, "Marixan" ostatuan atxemanen du irakurri nahi duenak

KIROLA

Zazpiak Bat txirrindula martxa Lesakatik Lesakara

Zazpiak Bat Euskal Herriko Zikloturista taldeak igande honetan, irailak 21, Lesakan hasi eta bertan bukatuko den 78 kilometroko txirrindulazaleentzako martxa antolatu du. Ibilaldia Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoan barna igaroko da eta Saran, 47. kilometroan, horniketarako postua egonen da. Ibilbide bakarra izanen da, 9:30etan abiatuko dena Lesakatik. Izen ematea irailaren 20a arte web orriaren bidez (www.zazpiakbat.com) edo Lesakan bertan, larunbatean 17:00etatik 20:00etara edo igandean 7:30etatik 9:00etara egiten ahal da udaletxeko arkupetan.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA



BELARRA
OSTATUA • JATETXEA
Amezitia karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

ITURLANDETA, 6 • © 948 63 02 40 • BERA

DROGUERIA MOLINERO
DROGERIA LURRINDEGIA OPARIAK
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia



ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

ARANO

Bi ume joanen dira aurten herritik Goizuetako eskolara

Garagardo lantegiak Arula errekatik ur gehiago hartzeko eskaria egin du

Kontxi KLABER

1972 urtera bitartean Arano bertan izaten genuen eskola, eta urte honetan hasi ginen aranoarrak Goizuetako eskolara joaten.

Autobus bete ume joaten ginen, baina azkenean urte hauek izan dira aldatu dira gauzak eta errez sartzen dira kotxe

batean Aranoko haurrak. Joan zen kurtsoan ume bat hasi zen eta aurten beste bat, baina bi hauen aurrekoak aurten du bere azken urtea Goizuetan, kontuak atara zenbateko hutsunea dagoen tartean.

Nere ustean haur hauek hasi izanak, zoriontzekoa da.

Ur gehiago hartzeko baimena eskatu du Heineken garagardo enpresak

Heineken España garagardo enpresak, Aranon duen lantegirako ur gehiago hartzeko baimena eskatu dio Confederación Hidro-



UTZITAKO ARGAZKIA

1953ko irailaren 5ean ezkondu ziren Aranoko San Martin elizan Agustin Ansa eta Maria Klaber eta 50 urte geroago, irailaren 7an eliz berean ospatu dute beren lau seme-alaba, bost biloba eta famili artean. Zorionak bieri, 50 urte bete baitituzte esposaturik.

gráfica del Norte erakundeari. Anbeltze errekarara isurtzen duen Arula errekatik urteko 302.400 metro kubiko ur hartzen du gaur egun garagardo enpresak eta kopuru hori 426.000 metro kubikora igotzea eska-

tu du. Eskari honek ez omen luke eraginik izanen egun dauden instalazioetan. Enpresak ura egun gehiagotan hartu nahi du errekatik, baina egun bakoitzean hartzen duen ur-kopurua igo gabe.

ARESO

Herriko parrokiak Aralarko erromerian parte hartu zuen

Uharte-Arakilgo Artzain Txakur txapelketan bigarren saria eskuratu zuen Antonio Alustizak

Juana Mari SAIZAR

Irailaren 7an Aralarko erromeria bederatzigarren urtez ospatu zen eta Aresoko parrokiak, bertze hainbat herrirekin batera, bere gurtzea eraman zuen San Migeli bisita bueltatuz. Guardetxetik otoitzaldian joan ziren, familia eta bakea gaiak hartuz. Penitentzia ospakizuna eta meza, kanpoko beillardieran egin ziren.

Alustiza bigarren

Uharte-Arakilgo Artzain Txakurren txapelketan Antonio Alustizak bigarren postua lortu zuen eta honek aukera eman dio joan den asteburuan burutu zen Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko.

Zuriñe Goikoetxea

Zuriñe Goikoetxea igerilariak Nafarroako Udako Jolas Kiroletan brontzezko domina lor-

tu zuen bizkar modalitatean eta zilarra erreleboetan, Baztan-Bidasoa taldearekin. Talde honek erreleboetan zilarrezko hiru domina lortu zituen.

Uso postuen enkantea

Uso postuen enkantea egingen da irailaren 20an eta sexta, berriz, irailaren 27an, 19:00-etan Herriko Etxean.

Beste aldetik, gripe-



ARTXIBOKOA

Bizkarka brontzezko domina eta erreleboetan zilarra eskuratu du Zuriñe Goikoetxea igerilariak.

aren kontrako txertoa irailaren 24an eta urria-

ren 15ean emanen da herriko kontsultan.

LEITZA

Atakabeltza utzi eta Maxurrenea hartu du Guardia Zibilak

Ostiral honetan «Maxurrenea herrintzat» manifestazioa egingen da

Mikel ILLARREGI

Berriro ere Maxurrenea da notizia. Gogoratzan baduzue iaz ekimen eta mobilizazio desberdinak antolatu ziren "Maxurrenea herrintzat" izenburupean. Egun, Atakabeltza etxea utzita goardia zibilek egoitza berria prestatu dute Maxurrenean. Honetan sartu aurretik, etxearen kanpo aldean obrak egin dituzte bideo-kamarak eta bestelako egokitzapenak egin.

Jakina da, aurreko udalak jada, Nafarroako Gobernuak goardia zibilei eginiko zesioaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuela eta erabaki bitartean aurrera ez jarraitzeko eskatzen zen.

Duela hamabost egun, batzar berezia konbokatu zuten eta bertan alkateak eginiko idatzia eta Larrain taldeak bere aldetik eginikoa aztertu, bozkatu eta onartu ziren, UPNren aurkako botoekin.

Lehenengo idatziak, besteren artean, aurretik eginiko firma bilketa gogoratzen zuen eta honak berak adierazten zuena. Bestetik, Batzar berezia deitzen zuen eta amaitzeko Nafarroako Gobernuaren eta Guardia zibilek "begirune falta eta gehiegikeria" salatzen zituen.

Bigarren idatzian, alde batetik, obrak egin diren bezala egiteaga-



ARTXIBOKOA

la urtebeteko ekimenak eta mobilizazioak izan ziren iaz, Maxurrenea eskuratzearan alde.

tik epaitegietara jotzea eskatzen zuen. Bestetik, zehaztapen espedienteak tramitatzea. Bianako Printzea erakundeak, etxe katalogatua den honetan eginiko-egatik espedienteazabaltzea eta azkenik, etxea lehendik zegoen egoeran uztea, eskatzen zen.

Batzarra amaitu au-

rretik, bezperan, Aralarrek, Larrainek, EAK eta Maxurrenearen aldeko plataformak eginiko bilera aipatu zen eta bertan hartutako erabakiak berretsi; prentsaurrekoa egin, etxetara informazioa igorri eta irailaren 19rako 20:00etan "Maxurrenea Herrintzat" izenburupean manifestazioa deitu.

Erreka jaitsiera

Udako garaia pasa ondoren, udazken aldean, Mendibil mendi taldeak berriro ekin dio irteerak prestatzeari. Oraingo honetan, mendi batera igotzea baino, errekaaren ibilbidea jarraituz, jaitsiera izanen da "betebarreko lana". Hau, Guara bailaran (Huesca) dagoen Bero errekan gauzatuko da irailaren 21ean. Lauzprobost orduko esperientzi honetarako, neoprenezko jantziak hartu behar dira eta aseguru bat bete ere bai, horregatik izenak aldeaz aurretik ematea nahitaezkoa da. Irteera bezperan izanen da, Irailaren 20an hain zuzen. Bertara joan eta aterpetxean lo egin ahal izanen da. Izenak emateko epea irailaren 18an, ohiko tokietan.

FLASH

Hautzaindegirako aukeratutako hezitzaile berria Mari Jesus Suncunza Larrea izan da.

Udaleko arkitektu eta aparejadore berriak

aukeratu dira; Celia Lana lehenengoa eta David Beorlegi bigarrena. Urtebeteko kontratua sinatu dute eta sei urte bitarte luzagarria izanen da urtez urte. Hauen lana; aholkularitza eskaintzea, informeak egin, planak aurkeztu...

Industrialdeko

alde berrian honako enpresa hauek daude edota jartzeko bidean daude; Hierros Leitza, S.L., Ondar (Segurtasun eta Informatika altzariak), Honar (Metal eraikuntzak) Jose Larrañaga S.A. (Briketagitza), Tantorioria.

Herria ezagutuz

Udal-kontuak (1568-1700) ⁽²⁾

- 1653an, danbolin jotzaileari, Corpus, San Joan, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan jotzeagatik 38 erreal.
- 1654ean, zezenketa, mezetako (festak) bigarren egunean, 5 dukat.
- 1655ean, zezenketa, mezetako bigarren egunean, 3 dukat eta 18 "tarja"
- 1656an, zezenketa, 81 erreal
- 1657an, zezenketa, 31 erreal
- 1658an, danbolin jotzaileari, Corpus, San Joan, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan jotzeagatik eta mezetagatik 4 dukat.
- 1659an, danbolina; 4 dukat. Zezenketa eta hesiak jarri eta kentzeagatik, 66 erreal.
- 1660an, Zezenketa eta hesiak jarri eta kentzeagatik, 72 erreal.
- 1661ean, zezenketa, Francisco Lazkanoren etxetik hesiak jarri, atera eta ekarteagatik eta "garrocha" gatik (zezenak zuzentzeko makila), 7 dukat. danbolin jotzaileari, Corpus, San Joan, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan jotzeagatik eta mezetagatik 5 dukat.
- 1664ean, "juglareari", 4 dukat Corpus, San Joan, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan eta mezetagatik.
- 1665ean, "juglareari", 4 dukat Corpus, San Joan, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan. Zezenketa eta hesiak jarri eta kentzeagatik eta garrotxak, 8 dukat eta 3 erreal.
- 1666an, Juglareari 9 dukat eta 4 erreal Corpus, San Joan, "Pascoa de Espiritu Santo, San Pedro eta Santa Elisabet egunetan.
- 1667an, zezenketa eta hesiak jarri eta kentzeagatik San Tiburtzio egunean, 7 dukat eta erreal bat.

BAZTAN

Udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea irailaren 23an akituko da

Baztandarrek lehentasuna izanen dute parte hartzerako orduan

ttipi-ttapa

Baztan Balleko Udalak eta Nafarroako Emakumearen Institutuak antolatutako udazkeneko ikastaroetan izena emateko irailaren 23an akituko da. Hainbat ikastarotan apuntatzeko modua izanen dute 16 urtez goitikoek, beti ere guttienez hamar lagunek taldea osatzen baldin bada.

Honela, marrazketa artistiko bi ikastaro izanen dira, astearte eta ortzegunetan Arizkuneko hirugarren solairuan. Talde bat, 17:00etatik 19:00etara izanen da eta bertzea 19:00etatik 21:00etara. Urriaren 2an hasita, 48 orduko iraupena izanen dute ikastaro hauek. Talde bakoitzean hamabortz lagunek ematen ahal dute izena. Baztanen erroldatuek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldatuak ez daudenek 86 euro.

Moble zaharren konponketa ikastaroa Kultur Etxeko bigarren so-



ARTXIBOKOA

Moble zaharrak konpontzeko bi ikastaro eskainiko dira, bat zura lanetan oinarritua. Azken honek 104 orduko iraupena eta hemezortzi lagunentzat lekua izanen du.

lairuan, astelehen eta asteazkenetan, 16:00etatik 20:00etara. Urriaren 6an hasiko den ikastaro honek 60 orduko iraupena izanen du. Baztanen erroldatuek 72 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldatuak ez direnek 108 euro. 15 ikaslerentzat lekua izanen da.

Moble zaharren konponketa-zura lana ikastaroan 18 lagunentzat lekua izanen da. Ortziralean eta larunbatetan, 16:00etatik 20:00etara. 104 orduko iraupena izanen du ikastaroak eta urriaren 3an hasiko da. Herrian erroldatuek 125 euro ordaindu beharko dituzte eta bertzeek 185.

Eskulan ikastaroa astearte eta ortzegunetan emanen da, 15:00etatik 17:00etara, urriaren 2tik aitzinera. 48 orduko ikastaro honetan 15 ikasle izanen dute lekua. Baztanen erroldatuek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta kanpokoek 86 euro. Ikastaroa hasi baino lehen

bilera egingen dute.

Lore prentsaturaz egindako konposizio ikastaroa, azkenek, astelehen eta ortzegunetan emanen da, 15:00etatik 17:00etara, urriaren 2tik aitzin. 48 orduko iraupena izanen du ikastaroak eta gehienez 15 lagunentzat izanen da lekua. Baztandarrek 50 euro ordainduko dituzte eta kanpokoek 86 euro. Ikastaroa hasi baino lehen bilera egingen dute.

Izen ematea Balleko Etxeko bulegoetan egin behar da, 9:00etatik 14:00etara. Onartuen zerrenda irailaren 24an agertuko da, udaletxeko eta Arizkuneko Kultur Etxeko iragarki-taulan.

EHOZIRI-LAN ETA LABOREEN IKASTAROA

Bertze aldetik, Elbeteo Teresak ere ehoziri lan (*encaje de bolillos* delakoa) eta laboreen ikastaroa emanen du. 948 581131ra deitu behar da izena emateko.

ORDOKI LIKOREAK
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepe nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

569 ikasle hasi dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxetan

Arizkungo eskoletan obretan ari dira, lehen solairuan hirugarren ikasgela egiteko

ttipi-ttapa

Haur eta Lehen Hezkuntzan 569 ikaslek hasi dute ikasturtea Baztango ikastetxe ezberdinetan. Horietatik gehienak, 250, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean ari dira, 122 Baztan ikastolan eta gainerako 197 ikasleak herri eskoletan. 62 irakasle izanen dituzte.

Arizkungo eskolan, ikasturtearen lehendabiziko egunean oraindik obretan ari ziren eta arrenkura agertu zuten irakasle eta gurasoek. Beheko solairuko bi ikasgelekin batera, lehendabiziko solairuan ikasgela berri bat erakitzen hasi dira, baina berandu. Lanen aurrekontua 42.000 eurokoa da eta osorik ordainduko du Nafarroako Gobernuak.

San Francisco Javier ikastetxeko 250 ikasle-tatik 89 Haur Hezkuntzan hasiko dira eta 161 Lehen Hezkuntzan. Baztan ikastolan 31 ume

dituzte Haur Hezkuntzan eta 91 Lehen Hezkuntzan. Herri eskoletako 197 ikasle-tatik 113 Haur Hezkuntzan arituko dira eta 85 Lehen Hezkuntzan. Amaiuren

15 ikasle izanen dituzte, Azpilkuetan 5, Erratzun 23, Arizkun 26, Gartzainen 17, Iruritan 32, Arraiozen 6, Oronozen 34, Zigan 16 eta Almandozen 23.

Oharrizko errepidea gan den urteko abendutik itxia

Oharriz auzoko sarbidea gan den urteko abendutik itxia dagoela eta bilera izan zuten irailaren 9an udal agintariek Angel Serrano, Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren zuzendari nagusiarekin. Autoendako pasabidea moldatu baldin bazen ere, ibilgailu astunak ez dute pasatzerik. Honela, baseritarrek, traktoretan garraiatu behar dute aziendakoa janaria. Honetaz gainera, inguruko ur-depuradora ere Oharriz auzoan dago, beraz afera lehenbailehen moldatzea



PERTSONAIA
Bittor ELIZAGOIEN

Arraiozek omenaldia eskainiko dio herriko bertsolariari

Arraiozko Elkarteak, Arraiozko Herriak eta Baztan Balleko Udalak antolatuta, omenaldia eskainiko zaio urriaren 5ean Bittor Elizagoien bertsolariari. Nafarroako bertsolari txapelketan lehendabiziko aldiz plaza-zenetik 25 urte bete dira aurten. Geroztik, urtero-urtero parte hartu du Nafarroako txapelketan eta bitan txapel-

peldun suertatu da gainera. Baztango bertso eskolako irakaslea ere izan da hainbat urtez. Gaur egun Oronoz-Mugairin bizi baldin bada ere, bere sorterrian omenaldia eskaini nahi izan diote. Honela, urriaren 5ean herri bazkaria egingen da Arraiozko frontoian. Txartelak salgai daude Elizondoko Antxitonean, Oronoz-Mugairiko Pierresenean eta Arraiozko Zubiondoan. Bazkal aitzinetik eta ondok bertsolariak arituko dira eta aurrekoa dantzatuko zaio.



ARGAZKIA, D. NAVARRA

Jorge Oteiza oronoztarraren «Labri» zakurra garaile suertatu zen irailaren 7an Uharte-Arakilen jokatutako Nafarroako XXXVI Artzain Zakur txapelketan. Gan den urtean, zakur honen ama «Jai» izan zen irabazle. Nafarroako txapela jantzi ondok, aste hondar honetan Izurtzan (Bizkaia) burutzekoak zen Euskal Herriko txapelketan parte hartzekoak ziren Oteiza eta Jai. Argazkian, Jorge Oteiza, Gaizka eta Lierni seme-alabekin eta Jai zakur-rekin ageri da.

616 513 497
Pititi
ESKABAZIOAK
(C/America)
TODI DONOSTIA (NAVARRA)

asnáp me
• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asistentzia
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONOSTIA: Rúa Semorán, 4 lekuak. Tfno: 948 431323 Tfno/Fax: 948 431418 webmaster@asnapme.com

ELIZONDO: Sarriena, 51 lekuak. Tfno/Fax: 948 580 508 elizondo@asnapme.com

BEZAYA: Sarriena, 1 lekuak. Tfno: 948 582238 Tfno/Fax: 948 582344 bezaya@asnapme.com

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

SENPERE

Baionako su-prefetak ez du nahi herriko etxeak departamenduzaleak diruz laguntzea

Skunk, Tabasco eta Xitoak taldeek alaituko dituzte Ibarungo bestak

Franck Dolosor

Baionako su-prefetak ez du batere begionez ikusi herriko etxeak AED elkarte departamenduzaleari 150 euroko diru laguntza eman izana Bateraren kanpainaren karietarat.

Andere auzapezak ez baitu laguntza hori ezeztatu Jean Michel Crevet-ek galdegin zuen bezala, auzitegi administratiboraino ereman du afera hori su-prefetak, diru laguntza horren interes lokala ez delakotz frogatua. Herriko etxetik bertzerik diote, Batera plataformaren aldarrikapenak gauzatzeari, hala nola eskual departamendua, laborantza ganbara, Baionako unibertsitatea eta eskuararen ko-ofizialtasuna senperten interesetan daudelakotz.

Auzia bi urteren buruan ospatuko da. Anartean, urriaren 11an, Bateraren manifestaldi berri bat ospatuko da Baionan eta bertze herri batzuek diru laguntza emanen diote AED taldeari Senpereko herriko etxeari eskartasuna erakusteko gisan.

Ibarungo bestak

Xerri tikiaren jateak idekiko ditu Ibarungo bestak buruilaren 26an.

Lau egunez animazio frango ospatuko da lehenagoko herriko erdialdean. Hauen artean dantzak, mutxikoak, kontzertuak, afari dastaketak eta pilota partidak. Igandean, arratsaldeko 4etan, Harozarene anaiak Larretxea eta Dermiten kontra ariko dira. Astelehen goizean aldiz, Berasategi-Mendiburuk eta Mariluz-Garmendiak jokatu dute Ibarungo plazan. Musikari dagokionez, larunbatean kontzertua eskainiko du Skunk taldeak eta dantzaldiak Beñat Elizondo eta Tabasco eta Xitoak taldeen esku izanen dira.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Kirol zelaiak itxura berri berria izanen du aski fite jarleku eta aldagela berriak eraikitzen ari direlakotz.



Gasteizko eskual gobernamendua eta Iparraldeko instituzioek mugaz gaindiko lehen hitzarmen ofiziala izenpetu berri dute Baionan eskuara laguntzeko Ipar Euskal Herrian. Akordio huni esker, lehen aldikotz erdiz erdi finantzatu dira eskuarari buruzko proiektuak. 300 000 euroko laguntzak emateko prest direla aintzinatu zuen Miren Azkarate Gasteizko kultura sailburua. Eskuin, urriaren 11ko manifestaldia aurkezteko prentsaurrekoa.

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88



bentamiguel
detala, jateak eta ospakizunak

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

Talokua
Ikortak
Janariak
Urdategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zelaia, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

SARA

Barandiaranen omenez trukaketa antolatu dute Ataun eta Sarako Herriko Etxeek

Erretretatuek urteko ateraldia eginen dute buruilaren 24an

Saski eta Xan

Lehen aldikotz Sara eta Ataungo Herriko Etxeek trukaketa bat antolatu dute Jose Miguel Barandiaranen omenez. Ataun herrian sortutako euskaldun honek bere biziko hamabortz urte Saran iragan eta bi herri horiek haren oroimez bi asteburu antolatu dituzte.

Lehenik, Ataungo herriak 25 bat saratar gomiatu ditu, auzapeza, kontseilariak, dantzariak, pilotariak eta gaztetxeoak. Bazkari eder baten ondotik, Zazpiak Bat taldeko dantzariak ikusgarri bat eman zuten. Hango koralak kantatu eta Sarako pilotari gazteak Joko Garbin ari ziren.

Bigarrenik, Sarako besten kariatarat, Ataungo hamabost bat lagunek saratarren artean igandea pasatuko dute.

Errugbia

Saratarrek aurtengo txapelketa buruilaren 21ean etxean hasiko du-



Olhain ikastolako haurrak eta irakaslea Pantxika Solorzano eta Xano Halsouetekin egin kantaldian.

ARTXIBOKOA

te Hossegor taldearen kontra. Lehen fasean Kanbo, Uztaritze, Ziburu, Puyo eta Hossegoreko taldeak multzoan izanen dituzte. Joan den urteko sasona ona izan bazen, aurten Basurdeek azkar lotu behar dute maila batez upatu baitira.

Ikasturte hasiera ikastolan

2003-2004 ikasturtea azkar-azkar hasi da Olhain ikastolan. Hala nola, kopuruak goiti ari zirela eta, lehen mailaren idekitzea erabaki zen eta 21 hurrekin abiatu dira aurten Ama

ikastola eta lehen mailaren artean.



Erretretatuen urteko ateraldia

Sarako erretretatuek egunerokotasunetik ateratzeko aukera ukanen dute heldu den buruilaren 24an. Urte guziz bezala, ateraldi bat proposatua izanen zaie, aurten Gipuzkoa aldera joan dira, Donostira prezeski. Sarako plazatik 9:00etan abiatuko dira eta 10:30etan hitzordua dute Aquarium-a bisitatzeko. Itzultzerakoan, Hondarribiko Arдора jatetxean bazkalduko dute. Belarriak berotu eta bostak aldera itzuliko dira. Parte hartu nahi dutenek, izena Herriko Etxean eman beharko dute, buruilaren 19a baino lehen. 25 euro galde-tuak izanen zaizkie.

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTION DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztita
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ZOANSA

FIAT AUDI VOLKSWAGEN

SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Gaupasa antolatuz gaztetxea aldarrikatuko dute herriko gazteek

Larunbat huntan egun osoan izanen dira ekitaldiak

Ihintza, Angela eta Eneko

Gemuku elkarteak herriko gazteak mobilizatu nahi ditu, duela bi urte bezala, gaupasa haundi bat antolatuz kirolelan. Bertze urteetan bezala 80 bat laguntzaile bilduko dira larunbatean beren beharren aldarrikatzeko. Badu orai 8 urte Gaztetxea eskatzen duela Gemukuk Azkainen, lokalik gabe gelditu baitziren gazteak berena desegina izan zenetik.

Bertze gazteteen sustengua espero dute aurten ere bai. Duela bi urte bezala, bertze herritako gazteekin loturak mantendu nahi dituzte, hortarako Larunbateko egitaraua ere aski kargatua izango da:

11etan: zintzur bustitza trikitalariekin. 13etan: Bertso bazkaria Xumai Murua eta Egoitz Zelaiekin Arratsaldean Joko Pista herriko karrketan, Karrika antzerkilaria. Arratsean: Dantza ikusgarria: Bumbadabum (Basusarriko dantzari gazte-ensorkuntza berria) eta

bertzeak. Gauean kontzertuak: Zerbait (Azkain), Izate (Donibane Iohizun), Eraso (Gipuzkoa), Psykup (Toulouse), Lareplik (Bordele).

Axafla Baitako bestak

Axafla baita auzoko bestak Igandearekin eginen dira izen bereko jatetxean. Tradizio haundien antolatuak izanen dira. 10:30etan hasiko dira ekitaldiak Peru Baitan, gazteteoen pilota partidarekin. Bazkalondotik Iksleak tadeko dantzari gazteak arituko dira, aizkolaria eta harri altxatzaileak agertu aitzin. 19:00ak alde mutxikoak emanen dira aperitifako tenorean. Panpi Laduxek emanen du dantzaldia afariaren ondotik.

Palantxa torneoaren finalak

Udako palantxa torneoaren finalak irailaren 19an hasiko dira ortziralarrekin (2. maila eta neskek). Bertzeak larunbatean eginen dira.

Ortziralean talo gaua eta larunbatean afaria antolatuak izanen dira.

Errubia

Aurtengo errubi taldeko jokolarien kopurua ttitu da. 30 baino guttiago dira eta zaila izanen zaie bi talde osatzea momentuko. Matxak asteburu huntan hastekotan dira. Aurten lehen eta bigarren mailan arituko dira Azkaindarrak eta eguberri arte 6 taldeko multxo batean arituko dira, denak Landestarrak salbu Arrangoitze. Entrenatzaileetan ere aldaketak izanen dira, Albistur-Uranga da taldearen buru egonen den bikotea.

Haurrentzako kirola

Errubi eskola eta Atletismo eskolako izen emaitak hasi dira jadanik bainan ez dela berantegi 6-14 urteko haurrentzat. Errubia larunbat arratsaldetan eginen da 14:00etatik goiti, atletismoa aldiz asteazkenetan eginen da tenore berdinetan.



Irailaren 20ko gaupasarako prestatzen ari dira Azkaingo gazteak.



Marmitako xapelketa herriko plazan egin zen

Aurten azkenean antolatzaileek lortu zuten marmitako lehiaketa herriko plazan egin zedin. Aldaketa biziki preziatua izan zen bazkaltiarrenganik. 19 bikotek parte hartu zuten xapelketan eta 250 bazkaltiar izan ziren kozinariaren obren jastatzeko. Irabazleak aurten Hendaia izan ziren eta aski berant arte ospatu omen zuten beren garaipena.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Gierresetean

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

JULIE'S ENGLISH ACADEMY

SPARK

- ✓ 2003-04rako matrikula irekia urriaren 3a bitarte. Plaza mugatuak.
- ✓ Haur eta helduendako ingeles klaseak
- ✓ Azterketa ofizialerara aurkezteko prestakuntza.

948 580 175 - 636 858 850
Paularena, 35-1.A • ELIZONDO



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



EZKONTZAK

Paxkal Larronde eta **Bernadette Zunda**, Sarakoak, uztailaren 12an.

Nicolas Guillaume Ainaga eta **Aurélie Vanessa Line**, Azkaingoak, abuztuaren 3an.

Michel Souharse eta **Yolande Larzabal**, Azkaingoak, abuztuaren 3an.

Juan Maria Ugartemendia Armendariz eta **Aloña Mendizabal Arregi**, Berastegi eta Leitzakoa, abuztuaren 30ean.

Igor Garcia Arizmendi eta **Maria del Rocío Larralde Sagastibeltza**, Lasarte eta Leitzakoa, abuztuaren 30ean.

Jesus Jimenez Goia eta **Ilaria Boz Carré**, Lesaka eta Genova-Italiakoa, irailaren 6an.

Xabier Sagardia Sarasa eta **Silvia Corchón Arretxe**, Iruñekoa eta Iruñekoa Iturenen, abuztuaren 30ean.

Antonio Cabañas Martinez Treceño eta **Estibaliz Garmendia Leiza**, Madril eta Arantzakoa, uztailaren 4an.

Lino Indakoetxea Ariztegi eta **Miren Izsakun Zubialde Grajirena**, Zubieta eta Irungoa, abuztuaren 2an.

Jokin Etxarte Esteban eta **Amaia Indabere Loperena**, Iruñekoak Zubietan, irailaren 6an.

Ramiro Eduardo Noguera Vales eta **Mari Carmen Salaberri Sanz**, Iruñekoak Elizondon, abuztuaren 20an.

Raimundo Bueno Errandonea eta **Esther Arribas galarraga**, Donostia eta Sorraluzekoa, Donamarian, abuztuaren 28an.

Eduarne Ansalas Sanzberro eta **Luis Labairu Irigoien**, Etxalar eta Iruñekoa, abuztuaren 30ean.



SORTZEAK

Eider Taberna Mutuberria, Arantzakoa, uztailaren 30ean.

Maria De Rueda Berasaluze, Arantzakoa, abuztuaren 12an.

Uxue Alustiza Iparragirre, Arantzakoa, abuztuaren 14an.

Xabier Lopez Zabaleta, Elizondokoa, abuztuaren 21ean.

Oihana Arratxea Sagastibeltza, Elizondokoa, abuztuaren 22an.

Ellande Altzugarai Ariztegi, Elbetekoa, abuztuaren 20an.

Oihan Goñi Bouzourene, Elizondokoa, abuztuaren 30ean.

Mikel Agirre Sagaseta, Donamariakoa, abuztuaren 26an.

Aiala Mitxeo Etxeberria, Igantzina, abuztuaren 23an.

Oier Etxarte Sunsundegi, Igantzina, irailaren 4an.

Laida Etxeberri, Sarakoa, abuztuaren 23an.

HERIOTZAK

Jesusa Goienetxe Violet, Berakoa, abuztuaren 13an, 79 urte.

Maria Etxeberria Grajirena, Iturengoa, abuztuaren 13an, 81 urte.

Miguel Angel Etxarte Sein, Igantzikoa, abuztuaren 14an, 34 urte.

Juan Etxeberria Ameztio, Igantzina, abuztuaren 31an, 84 urterekin.

Bautista Gartziaena Uzkudun, Legasakoa, abuztuaren 22an, 82 urte.

Justo Zaldain Zugarramurdi, Arizkongoa, abuztuaren 22an, 88 urte.

Salvador Etulain Urrutia, Berroetakoa, uztailaren 29an, 74 urte.

Jesus Maria Astibia Olanu, Leitzakoa, uztailaren 23an, 51 urte.

Pedro Lasarte San Martin, Leitzakoa, abuztuaren 25ean, 80 urte.

Cristobal Maria Rekondo Zabaleta, Leitzakoa, abuztuaren 25ean, 86 urte.

Pablo Barandiaran Irigoien, Berakoa, uztailaren 20an, 77 urte.

Juan Rodriguez Gogorza, Goizuetakoa, abuztuaren 24an, 80 urte.

Justa Antsa Huarte, Goizuetakoa, abuztuaren 25ean, 79 urte.

Dominika Mutuberria Mutuberria, Elgorriagakoa, abuztuaren 26an, 88 urte.

Cristina Ugarte Gortari, Oronoz-Mugarikoa, abuztuaren 10ean, 43 urte.

Jose Fagoaga Azkona, Berakoa, irailaren 2an, 81 urte.

Martin Baleztena Alberro, Iturengoa, abuztuaren 27an, 77 urte.

Jose Oskoz Iturria, Arantzakoa, irailaren 1ean, 83 urte.

Julian Olaetxea Iturralde, Lekarozkoa, abuztuaren 27an, 82 urte.

Maria Manuela Gaztelu Jacome, Iruretakoa, abuztuaren 30ean, 98 urte.

Bautista Adansa Baretzeondo, Arraiozkoa, irailaren 8an, 83 urte.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO
BAZTAN FUNERARIA
Pedro Axular 6 • ELIZONDO

Baztan, Urdazubi eta
Zugarramurdi
24 orduko zerbitzua
tanatorioan eta etxean
prezio guzietan

☎ 948 581959



Miguel Angel ETXARTE SEIN «KAXOT»

*Urak dakarrena
Urak daroa
Zuk emandakoa
Gurekin gelditzen da*

**1968ko Igantziko kintoak.
Igantzina, 2003ko abuztuaren 14a**



Cristina UGARTE GORTARI 2003-VIII-10

*Zurekin ongi pasatu genuen
eta zutaz oroituko gara.*

EZPELURA ELKARTEA.

• Berrogeita hiru urte ditu Francisco Javier Meoki txirrindulari elizondarrak. Duela lau-bortz urte hasi zen konpetitzen beterano mailan eta aurtengoa izan da bere denboraldirik onena.

• Espainiako kopa irabazi zuen irailaren 7an, hiru proba irabazi,



Francisco Javier MEOKI *Elizondoko txirrindularia*

Espainiako Kopa irabazi du 40-50 urte bitarteko beterano mailan

zuen Kalatayuden. Proba hau baino lehen ere sailkapenaren buruan zegoen eta hondarreko lasterketa irabazita sailkapen orokorreko lehendabiziko postua segurtatu zuen. «Aitzineko egunetako nerbioen ondotik, denboraldia borobiltzeko modua izan zen» dio Meokik.

Honetaz gain, ekainaren 22an Guadalajarako Alovera herrian jokatu zen Espainiako txapelketan hirugarren izan zen, 140 txirrindulariko tropelean. Postu horrek, abuztu hondarrean Austrian jokatu zen Munduko txapelketan parte hartzeko eskubidea eman zion lehendabiziko aldiz, 40-44 urte arteko kategorian. Meoki tropelarekin batera sartu zen lasterketa honetan, baina «hori bertze maila bat» dela irudituz zitaion. «Esperientzia ederra izan zen, hura ezagutu, bidaia... baina lasterketa bera arras gogorra izan zen. Jendea ongi prestatua dago, abiadura handia ibiltzen da eta ahal genuena egin genuen, baina ez zen gauza izugarria izan. Aitzinetik bi belgiar, australiar bat eta errusiar bat ihes egin da ailegatu ziren eta gero tropel handian sartu ginen, 35 segundura».

BI EPETAN EGINDAKO TXIRRINDULARI BIZIA

Gaszte mailan eta afizionatutan lasterketaren bat korritu ondotik, soldaduskak geldiarazi zuen Meokiren txirrindulari karrera. Urteak pasa ondotik, bere betiko afizioan berriz ere konpetitzeko gogoia sartu zitzaion, duela lauzpabortz urte. Gaur egun Tafallako Scania taldearekin ari da eta taldekideek azken proban eman zioten laguntza eskertu nahi du. Baita entrenamendu lagun-arerio duen Iñaki Villoria iruritarrarena ere. «Berekin entrenatuz gero lehertzen zara edo sasoi ezin hobea hartzen duzu. Bistan denez, aurten bigarrena gertatu da».

Lasterketa gogorrak gustatzen zaizkio Meokiri, «igoera eta portu handiak dituztenak. Erlojupekoak ere egiten ditugu tarteka, baina hori ez dut ikusi nahi ere! Gaizki moldatzen naiz erlojuaren kontra».

FUTBOLA

Jon Irazoki VIII. Memoriala Lesakako Beti Gaztek irabazi zuen

Berako Gure Txokoa izan zen bigarren eta Baztan hirugarren

Aitor AROTZENA

Lesakako Beti Gazte taldeak irabazi zuen abuztuaren 30ean Berako Matxada futbol zelaiaren jokatu VIII. Jon Irazoki Memoriala. Aurtengoan eskualdeko hiru talderen artean jokatu zen txapelketa eta liga ezberdinetan arituko direnez, denboraldi osoan elkarren kontra lehiatuko diren aldi bakarra izanen da. Lehen zatian, Berako Gure Txokoa eta Baztan aritu ziren. Baztandarrak aitzindu ziren, baina beratarrek berdintzea lortu zuten. Bigarren zatian, Beti Gazte eta Baztan aritu ziren. Berriz ere aitzinetik jarri ziren baztandarrak, baina lesakarrak buelta eman zioten markagailuari (2-1). Hirugarren zatian Bortzrietako bi taldeak aritu ziren. Gure Txokoak garaipena behar zuen txapelketa irabazteko eta Beti Gaztek berdinketa aski zuen. Beratarrek aitzindu ziren markagailuan, Iñaki Irazokik penaltiz sartutako gol baten bidez. Jokaldi honetan, gainera, Beti Gazteko bi jokalarik kanporatu zituen epaileak protesta egiteagatik. Baztanduen aurten etxean geldituko zela txapel-dunen kopa, baina Iñigo Rodriguezen golarekin berdinketa lortu zuen Beti Gaztek. Txapel-dunen kopa, Jon Irazoki zenaren aitaren eskutik jaso zuten lesakarrak.



ARGAZKIAK: AITOR

Lesakako Beti Gazte taldeak irabazi zuen Jon Irazoki VIII. Memoriala, partidu bat irabazi eta bertzea berdinduta. Gure Txokoak biak berdindu zituen eta Baztanek bat berdindu eta bertzea galdu.

TXIRRINDULARITZA

Miriam Blas eta Hegoi Ado bikain Munduko mendi bizikleta jautsiera txapelketan

Irailaren 6an jokatu zen Luganon (Suitza) Mendi Bizikleta Jautsierako Munduko txapelketa. Bertan, bi beratarrek osatu zuten Nafarroako ordezkaritza. Emakumeetan, senior mailan Miriam Blas hamahirugarren postuan sailkatu zen eta gizasemeen junior mailan hamabosgarren izan zen Egoi Ado. Hiru kilometro inguruko jautsiera egin behar izan zuten partehartzaileek, baina tartetarako 1.140 metroko altueratik 471 metrora jautsi ziren, banaz bertze %22,3ko malda. Biak ere gustora azaldu dira probaren ondotik, hasieran zituzten helburuak bete baitzituzten. Adorentzat nazioarteko lehenbiziko proba zen eta Blas 24. izan zen joan den urtean.



Miriam Blas Igantzin Nafarroako txapel-dun izan ondotik.

AGENDA

egunez
egun

ERAKUSKETAK

ELGORRIAGA

Irailen Nacho Mur Zubillaga pintorearen eta Chema Pastor Muñoz eskultorearen lanak ikusgai eskolan, 19:00etatik 21:00etara.

IKASTAROKAK

ELIZONDO

Irailen eta urrian erretzeari uzteko ikastaroa. Goizeko 11:00etatik 13:00etara emanen da. Izena emateko Osasun Zentrorra deitu behar da, 948 581832 edo 948 581833 telefonoetara.

KIROL EKITALDIAK

LESACA

Irailaren 21ean Zazpiak Bat Euskal Herriko Zikloturista taldeak antolatua Lesaca-Lesaca martxa. Xehetasunak 23. orrian.

ANTZERKIA

LESACA

Irailaren 20an Gorringo taldearen «Kutsidazu bidea, Ixabel» antzezlan, 20:00etan Zambran.

GAUPASAK

AZKAIN

Irailaren 20an Gaztetxearen aldeko gaupasa. Egun osoan ekitaldiak eta gaez kontzertua Zerbait, Izate, Eraso. Psykup eta Lareplik taldeekin.

DONEZTEBE

Irailaren 20an ostatuek antolatutako gaupasa.

SOLASALDIAK

ETXALAR

Irailaren 19an Nabarralde elkartearen hitzaldia Kultur Etxean, 20:00etan. Nafarroako kultura, historia eta nortasunari buruz...

TELEBISTAKO TXOKOA



ARTZAI ZAKUR LEHIAKETA OSORIK

Igantzik San Migelek itxiko dute «Bestaz Besta» saioa

Bestak udarekin lotu ohi ditugu eta normalki herri gehienetan eguzkia eta beroa izaten dira bestetako protagonista. Giro horretan egiten du Ttipi-ttapa telebistak «Bestaz Besta» saioa. Orain, eguna laburtzen eta gaua luzatzen hasi denean, udak udazkenari leku utzi behar dionean ailegatuko zaizkigu Igantziko San Migel bestak eta urtero bezala, ttipi-ttapa telebistak irudirik ikusgarrienak etxetara helaraziko ditu: txupinazoa, aurten berreskuratu dituzten betizuak, N afarroako koxkor biltzaileen txapelketa, Peñagarikano eta Irazu bertolariekin izanen den bertso pilota saioa edo herri bazkaria...

Irailaren 29tik urriaren 1era San Migelek eman dutena ikusteko modua izanen duzue etxe xokoan. Baina hori guzia baino lehen, larunbat honetan hogeita laugarren aldiz Artzain Zakur lehiaketa egiten da. Artzain eta zakurren arteko harremana ardiak gidatzen nola gauzatzen ikusteko modua izanen dute Meakaundiko zelaira hurbiltzen direnek, baina horretarako aukera ez dutenek, heldu den astean ttipi-ttapa telebistan izanen dute ikusgai.

Bien bitartean, berrikuntzaz bete heldu den denboraldiko programazioa prestatzen ari da ttipi-ttapa telebista.

DISKAK



«Euria ari duela»

SAGARROI

METAK, 2003

Duela bi urte karrikaratu zuen bere lehen diska Sagarroi taldeak. Kortatu, Negu Gorriak, Delirium Tremens, Joxe Ripiau eta bertze hainbat proiekturen aritu ondotik, Iñigo Muguruza izan zen talde berri honen burua. Lehen diska harekin jende aunitz harritu zuen Sagarroi, Joxe Ripiauren suposatzen zuen hausturagatik. Akaso, «Euria ari duela» disko honen esperoan zeuden entzule haiek. Orduko grunge eta rock ilun doinuetatik, berri ere ska eta reggae tropikaletara itzuli dira Muguruza eta bere taldea. Hogei urte daramazki konposatzen Iñigok eta berak dioenez, «besta giroa eta kaña txanpon beraren bildeak dira». Oraingoan, «eguzki aldera» jo duela dio. 13 abestiez gain, bideo-klipa eta «Topa!» izeneko kantu extra (Bilboko Konpartsen Elkartearen diskorako egina) heldu dira CDan.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Abuztuaren 29tik irailaren 5era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 16,00 € (=)

Zerri gizona
1,025 € kilo. (-0,04 €)

Zerramak:
0,40 € Kg/bizirik. (-0,01)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,04 (=)
1.koa 2,92 (=)
2.koa 2,82 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,06 (=)
1.koa 2,98 (=)
2.koa 2,87 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 220,00€ (-25€)
idixkoak 225,00€ (-20€)

Aretze nabarrak:
urruxak 182,00 € (=)
idixkoak 206,00 € (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,75/2,90
Zaldi-behorrak: 1,75/1,86
Bildotsak: €/k
6-8 kiloak: 7,90 / 8,00
8-10 kiloak: 6,45 / 6,75

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Estresa haurtzaroan

Haurtzaroa zorionez betetako eta kezkarik gabeko garaia denaren ideia, zoritxarrez, errealitate gero eta urrunago dago, guraso eta hezitzaileek estresa duten haurrak maizago topatzen baitituzte.

Gaur eguneko munduan konpetibitate handia dago, gurasok haurrei transmititzen dieguna. Klaserik ateratzerakoan, jostetan aritu beharrean, gero eta gehiago dira alde batetik bertzerak lasterka ibiltzen diren haurrak, dituzten klase partikular guzietara ezin ailegatuz: solfeo dela, ingelesa, informatika... Honekin ez dut erran nahi haurrek klase horiek hartu behar ez dituztenik, baina ezin ditugu estutu haurtzaroan den eskubiderik garrantzitsuen, jostatze eskubidea, kendu arte. Izan ere, josteta-

ren bidez haurrak tentsioa arintzeaz gain ikasi egiten du.

HAURTZAROKO ESTRESAREN SINTOMAK

Estresa duen haurrak ezinegona eta hestutasuna erakutsiko ditu. Ondorioz, etengabe eta arrazoirik gabe negarrez arituko da, ez du apetiturik izanen eta lokartzeko zailtasunak izanen ditu. Porrot tikiaren aitzinean gehiegizko modu batean erantzutea normala da, baita erasokor agertzea edo umore aldaketak izatea. Sintoma guzti hauek alarma seinaleak dira eta haurrak laguntza behar duela adierazten dute.

[Ez dut erran nahi haurrek klase partikularrik hartu behar ez dituztenik, baina ezin ditugu estutu haurtzaroko eskubiderik handiena, jostatze eskubidea, kendu arte.](#)



Klaserik ateratzerakoan, jostetan aritu beharrean, gero eta gehiago dira alde batetik bertzerak lasterka ibiltzen diren haurrak, dituzten klase partikular guzietara ezin ailegatuz.

ZER EGITEN AHAL DUGU?

- Baldintzarik gabe maite duzula erakutsi.
- Egitan garrantzitsua dena bereizten erakutsi.
- Ezetz erraten erakutsi, ezin baita dena hartu.

- Barne sentimenduak adierazten lagundu, ez dezala dena bere barnean gorde.
- Lana kendu, soberran duela ikusten duzunean.
- Porrot tikiak ikaste eta estrategia berriak lantzeko aukerak direla erakutsi.
- Eta batez ere, bera dena izaten utzi: haur bat.

Rakel AMIGO
Bortziritako Gizarte Zerbitzua

BESTAK

IGANTZI

Irailaren 26tik 30era. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

URROTZ

Irailaren 26tik 30era. Xehetasunak 17. orrian.

SENPERE

Irailaren 26tik 29ra. Ibarrungo bestak.

DONEZTEBE

Irailaren 26tik 28ra besta tikiak. Xehetasunak 18. orrian.

ETXALAR

Irailaren 21ean Axafila Baitako bestak. Xehetasunak 30. orrian.

AZKAIN

Irailaren 21ean Urritzokoietakako bestak. Xehetasunak 11. orrian.

KONTZERTUAK

SENPERE

Buruilaren 27n SKUNK taldearen kontzertua, Ibarrungo bestetan 22:00etan.

DONEZTEBE

Irailaren 26an kontzertua MORE, EKON-4 eta SAIK taldeen kontzertua Merkatu Plazan..

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Irailaren 15tik 21era

Lesaka (L. Marin), Ituren, Elizondo (E. Arrupea), Arizkun, Leitza eta Goizueta.

Irailaren 22tik 28ra

Bera (A. Lasarte), Doneztebe (S. Larraioz), Elizondo (R. Gezuraga Gil) eta Goizueta.

Irail. 29tik urriaren 5era

Bera (A. Fernandez), NARBARTe, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza eta Goizueta.

EZAGUTU ARGIA ASTEKARI BERRITUA



TTIPI-TTAPAREN ale honekin batera, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu.

Jakingo duzunez, ARGIA uda aurretik eraberritu zen. Itxuraz eta mamiz berritu da: diseinu gaurkotuagoa, itxura gazteagoa, informazioaren antolaketa berrizailera... Iritzi saila ere zabaldu egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu bakarrarekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei.

Berrikuntza hauek direla medio, ARGIA astekariak bere burua ezagutzera emateko kanpaina bati ekin dio. TTIPI-TTAPAK ere, ARGIA 3 astez doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi die bere irakurleei. ARGIA eraberritua ezagutu nahi baldin baduzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Xabierrez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. T'tipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea t'tipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. t'tipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

DONEZTEBE. Pisua salgai. Garajearekin eta mobleztatu. ☎ 948 450 040

TORREVIEJA (Alicante).

Hondartzatik 10 minututara dagoen apartamendua salgai. 9 milioitan tasatua. 7.900.000tan salgai. ☎ 600 352 178

BERA. Burga auzoan pisua salgai. Telefonika ondoan. ☎ 948 631 389 (gauez).

ELIZONDO. Pisua salgai (3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteroa). ☎ 680 538998.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisua errentan emateko. Altzate karrikan (larunalde). 3 logela eta 2 bainu-gela. ☎ 635 744 914

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

Zonaldean pisu baterentan hartuko nuke. ☎ 635 744 914

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

IRUÑA. Arrosadian pertsona bat behar da pisua osatzeko. ☎ 630 045 413

IRUÑA. Estafetan hiru lagun behar dira pisua osatzeko. ☎ 620 009 994.

IRUÑA. Pisua osatzeko neska behar da. ☎ 948 240969 (gauez).

GARAJE/LOKALAK

107 Saldu

BERA. 150m² + 150m²ko solairuarterko nabea salgai. ☎ 607 978 656

ELIZONDO. Lokal komertziala salgai. ☎ 948 580 175

GARAJE/LOKALAK

ADOS

- **BERA.** DIA supermerkatuaren gainean pisua salgai. Merke.
- Terreno bat erosi nahi da.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan apartamentu berriak 17.000.000 pta. - Ostiz denda ondoan pisu berria salgai.
- Terreno eraikigarria salgai.
- **ELIZONDO.** - Pisu pare bat salgai - Terreno bat erosi nahi da.
- **LESAKA.** - Pisu pare bat salgai - Terreno bat erosi nahi da.
- **ITUREN.** - 40 m²ko garajeak salgai. - Adosatuen promozio berria.
- **IGANTZI.** - Pisu promozio berria, erreserbak egiteko. Borda, baserriak, lur-eremuak, bajeak... erosi nahi dira.

948 451 841 / 607 978 656

109 Errentan eman

BERA. Kanttonberrin lokal komertziala errentan emateko. 70m², komunarekin eta solairuakin. ☎ 655 706 363

LESAKA. Bittiria karrikan, garajea errentan emateko. ☎ 948 630 994 - 666 730 596

LURRAK/ORUBEAK

113 Erosi

ELIZONDO-ELBETE. +/- 2.000 m²ko lur eremua erosiko nuke. ☎ 690 621 836.

LESAKA. Lur-eremu eraikigarria erosiko nuke. ☎ 948 637931.

LANA

301 Eskariak

BERA. Emakume batek etxe edo ostaturen batean lan egiten luke. ☎ 948 630 972 - 653 210 160.

Klinika laguntzailea eskaintzen da, adinekoak eta haurrak zaintzen esperientziduna. ☎ 639 526865.

Gizon batek lana bilatzen du. Osasuntsua, zintzoa eta pertsona ona. ☎ 639 526865.

LANA

302 Eskaintzak

IRUN. Jatetxe batean egun erdiz lan egiteko zerbitzaria bilatzen dugu. Euskalduna. Esperientzia baldin badu ho-



BAZTANgo UDALA

Sukaldeen erabilitako olioien
bilketa egunak

2003ko irailaren 25ean

Elizondo	9:00-13:00	Merkatuko zelaia
Elbete	13:05-13:30	Karriketan barna
Arizkun	13:45-14:15	Karriketan barna
Erratzu	14:20-14:50	Karriketan barna
Amaiur	15:00-15:30	Karriketan barna
Azpilkueta	15:40-16:00	Karriketan barna

☎ 948 580 006
Baztango Udala



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldeen erabilitako olioien
bilketa egunak

2003ko urriaren 2an

Bera9etatik 12etara
Etxalar13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako
zurgin lanak

Osiña auzoa. ☎ 948-634068 • ARANTZA

ROSA BELZUNEGI PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

be. Fijoa egiteko aukerarekin. ☎ 943 623 130

IRUÑA. Emakume euskalduna behar da senar-emazte adindua zaintzeko. Asteleheneretik ostiralera, goizez zaintzeko. ☎ 679389 539

IRUÑA. ikasle euskalduna

na (neska) behar da 4 urteko umea zaintzeko 12:30etatik 15:00etara, irailetik ekainera Donibane auzoan. ☎ 948 177 629. Deitu 15:30etatik aurrera.

LEITZA. Garraiolaria behar du laster lanean hasiko den

L n l z Itz

LAN ESKAINTZAK
(Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2003/05/30)
Izen-emate epea irekita dago
HAUR HEZKUNTZAN
20 lanpostu Iruñeko eskoletan
Eskakizuna: Haurtzaindegiko Teknikaria

ZAINZTAILEAK
(Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2003/05/28)
13 lanpostu Barañain-en
7 lanpostu Tuteran
Eskakizuna: Eskola-Gradutua

INF M TEK
L urtz l t t l m x r k.
l t t e t r k u r
u k t n l n t k.
l k r h l

L N ESK INTZ
Z n r u u l k t
h u r t z n t r l n
t k l k l s t r.

H U TZ IN EGI
L N GLE K
Esk K z u n F I

FISI TE EUT K
s k t z
t z h r t z t r l n
t k l k
r h l.

r s t z t z. h k n f r m z .

1 5

SAMPI ARAGON ZOANSA

Bigarren eskuko kotxeak:
Ford Pick-Up, Mitsubishi, Suzuki
Vitara 5p, Kia Sportage, VW
Golf TDI, R-19 Diesel, C-15
Diesel, Ibiza SDI. Citroen Saxo
eta bertze.

☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

BOAN TAILERRA

**AUTOEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA**

☎ 948 63 06 23 • BERA

SAMPI ARAGON ZOANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4),
furgonetak eta
autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

GANIX Tailerra

Iturilandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua**

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Calibra 16v, Opel Combo D Montero 3
atekoa, Terrano 3 atekoa, Golf TDI, Nissan
Almera Tino, Opel Corsa, Opel Astra
SUZUKIAKI ETA VITARRAK AUKERAN

nikariak behar dituzte. Presta zaitez. Dohako informazioa. ☎ 943 444509.

Administrariak. Laguntzaile nahiz teknikariak behar dituzte Udaletxe, Patronato nahiz Diputazioak. Deialdi konstanteak. Presta zaitez. Dohako informazioa. ☎ 943 444509.

Haurtzaindegiak. Haurtzaindegiek eta eskola publikoek langilegoa behar dute. Eskakizuna LH II. Haurtzaindegietan. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Lorezainak. Udaletxe ezberdinek lorezainak behar dituzte. Dohako informazioa. ☎ 943 444509.

Txoferrak behar dituzte diputazio eta udaletxe ezber-

enpresa batek. ☎ 619 829 289.

BERA. Jatetxe batean jantokiko-maisua behar dute, esperientziarekin. ☎ 948625 540.

LEITZA. Kamarero/a behar da asteburutan lan egiteko. ☎ 619 450249.

BERA. Bi urteko haurra zaintzeko pertsona bat behar da, goizeko 10:00etatik 16:00etara. ☎ 610 991 769.

Informatika. Udaletxe eta erakunde publiko ezberdinek laguntzaileak nahiz tek-

Ford ZALAIN MOTOR
Zalain auzoa / BERA / 948 63 11 57

URTE 1eko GARANTIA

FORD FOCUS TREND
1.8 TDI 90 CV 3 ate:
2002/07, 23.364 km,
EE, CC, AA, ABS, 4 Air-
bag, 5000 irrati, eta-
bar... Garantia 12 hi-
labete.

FORD MONDEO GHIA
2.0 TDI 115 CV FAMI-
LIARRA: 2001/03,
36.887 Km, EEx4, CC,
ABS, 6 Airbag, Klima,
Xenon, Llantak, 6 CD,
IPS... Garantia 12 hil.

FORD FOCUS TREND
1.8 TDI 90 CV 5 ATE-
KOA:
2001/07, 31.516 Km,
EE, CC, AA, ABS, 4 air-
bag, etabar. Garantia
12 hilabete.

IBILGAILUEN ERAKUSKETA
Bigarren eskukoak eta KMO

**ETORRI, ETA ZUK ZEUK
IKUSIKO DITUZU**

Ford KA41.3i60 CV3 atekoa 2002/06,
16.446 km, EE, CC, AA, DA Airbag,
garantia 12 hilabete.
Ford Mondeo 1.8i GLX 115 CV 5 ate-
koa 1994/02, 149.379 km, EE, CC, AA,
irratia etabar, garantia 3 hil. **Merke**
Ford Mondeo Ghia 2.0 TDI 115 CV
familiarra 2001/06, 142.114 km, EEx4,
CC, Klima, ABS, 6 Airbag, CD, Xenon,
GPS... garantia 12 hil.
Ford Mondeo Ghia 2.0 TDI 115 CV 5
ate: 2001/06, 44.255 km, EEx4, CC, Kli-
ma, ABS, 6 Airbag, CD, Xenon, GPS,
Garantia 12 hilabete
Ford Focus Ghia 1.8 TDI 90 CV Fami-
liarra: 1999/09, 99.913 km, EE, CC,
AA, 2 Airbag... Garantia 6 hilabete.
Ford Focus Ambiente 1.8 TDCI 115
CV Familiarra 2002/11, 19.214 km,
EE, CC, AA, ABS+IPS, 4 airbag, gara-
ntia 12 hilabete.
Citroen Xsara SX 1.9 TD 90 CV familia-
rra 1998/06, 86.122 km, EE, CC, klima,
airbag, irratia, garantia 6 hil. **Merke**

dinek. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Suhiltzaileak. Deialdiak berehala. Euskal Herriko parkeetan lan egin ezazu. Lan baldintza ezinhobeak. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Fisioterapeutak. Osakidetza eta zahar egoitzetan deialdiak berehala. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Autoeskolako irakasleak. Lan baldintza ezinhobeak. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Liburutegiko laguntzaileak. Lan egin ezazu Udaletxe nahiz zentru publikoetan. Presta zaitez. Adozek informatzen du. ☎ 943 444509.

Transportista. Lor ezazu transportista agiria. Presta zaitez. Dohako informazioa. ☎ 943 444509.

MOTORRA
501 Salerosketak
Scooter motoa salgai, Benelli K2-Aire markakoa. Egoera hagitz ona. ☎ 606656348
Lada-Niva diesela salgai, egoera onean. ☎ 647000749
Volkswagen Golf GL TDI salgai, CD eta extrak. Egoera onean. ☎ 948 627592

(gauzez).
Yamaha WR250 motoa salgai. 1998-99 urtekoa. Extra ugari. Prezio onean. ☎ 948 599266 (19:30etatik aitzin).
Seat Ibiza autoa salgai, 1.9 Diesela. Xuria, 3 atekoa. NA-AT matrikuladuna. Egoera hagitz onean. ☎ 607853208.
Trialeko Beta Tecno motoa salgai, 250 cckoa, 97 urtekoa. ☎ 626 178330.
Opel Corsa 1.7 Diesela salgai. 17 pulgadako llantak, ejea 9 cm zabaldua (dena homologatua). Ikusgarria. ☎ 617 218695.

ANIMALIAK
601 Emateko
Hiru zakurkume opari emateko. ☎ 948 635 160

ANIMALIAK
602 Salerosketa
Hiru zakurkume salgai. Atta eta ama basurde ehizikoak. ☎ 0559 47 50 13
Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 948450563.

DENETARIK
701 Galdu aurkituak
LESKA. San Fermin eguanean Albistur kalean, Villa isabeltik plazara, pultsera bat galduta da. ☎ 948 637 905 - 948

637 314.
Mendi bizikleta. Geant markakoa, urdina eta grixka, desagertu da Lesakako igerilekuan. ☎ 948 637463.
Settezarrazako bizakur galduta dira Oleta inguruan. ☎ 0033 610 127120.

DENETARIK
702 Salerosketak
Menghini markako trikitiza salgai, lau ahotsekoa. Berriberria. ☎ 948 580538 edo 948 452250.
Leitzan 5 m²ko kaseta salgai. Egur tratatuarekin egina. ☎ 948 510167 (Buldain).

DENETARIK
703 Bertzelakoak
Etxalarko Bentatik Irune-ra goizeko 7:00etatik 8:15etara pasatzen den norbait behar dut lanera joateko. ☎ 948 637 393.

Argazki soila: 3 €. Bikoitza: 6 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,26€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3 edo 6 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.


Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



MIKEL INDABURU LOIDI etxalartarrak 2 urte beteko ditu irailaren 17an. Aunitz urtez familiaren partetik.



SAIOA IRAZU ARRUTIK irailaren 10ean bete ditu 4 urte. Aunitz urtez atta, ama, Jaione, Sara eta Julelen partetik.



ITSASNE EIZAGIRRE ZUBIETA irundarrak 9 urte bete ditu irailaren 8an. Zorionak familiaren partetik. Agur neska haundi eta ondo pasa zure egunean.



Zorionak ANTTON irailaren 25ean urteak betetzen dituzulako. Lau muxu Andoni, Aitor, Irati eta Ireneren partetik.



Igantziko **MANE GARCIA FERNANDEZEK** irailaren 27an 6 urte beteko ditu. Zorionak etxekoen partetik.



BEÑAT MAYORDOMO ALMANDOZ beratarrak 3 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat atta, ama eta berexiki Xabieren partetik.



Azpilkuetako **LEIRE BARRENETXE** eta **AMAILA ITURRIRIARI**, aunitz urtez eskolako lagunen partetik, abuztuaren 18 eta 29an, 6 eta 9 urte egin zituztelakoz.



BEÑAT eta **OIER ERRO MUJIKA** elizondarrek urtea bete dute irailaren 5ean. Zorionak eta muxu bat aita, ama, arreba eta familia guziaren partetik.



MADDALEN LOPEZ TAPIA lesakarrak irailaren 12an 6 urte bete ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



DUNIA ABATAL beratarrak 8 urte beteko ditu irailaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



“Zure begiendako,
jar zaitetz esku onetan”

KIRURGIA:

Miopia
Astigmatismo
Hipermetropia
Bista nekatua

Zuen poztasuna da
gure garantiarik onena



Donibane Lohitzuneko Poliklinika:
0033 559 513 144

**San Juan de Luz
laser**



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa.: 948 45 32 59
Faxa: 948 45 34 23
e-Posta: betikopvc@teleline.es

Zertarako pasa hotza, soluziorik dagoenean

BETIKOn era guztietako itxierak egiten ditugu,
kolore diferentetan, baita haritz, pinu, kaoba, etabar ere

4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan
% 35a
irabaziko
duzu

ISOLAMENDUA



Ez du
pintura
beharrik

MANTENU ERREXA



Ur eta
haizetik
babesteko,
baita soi-
nuetatik ere

HERMETIKOTASUNA



Denborak
ez du
aldarazten

IRAUNKORTASUNA

Zaharberritzeak
obrarik gabe

Aluminio eta
PVC
zurgindegia

Fabrikanteak
garenez
preziorik
onenak
eskaintzen
ditugu

Estalpe irekia



Estalpe itxia



Portxeak



Kontraleihoak



Leihoak



Deceuninck markaren perfilak
kalitaterik handienekoak dira,
Aenor eta NFren zertifikatuarekin,
bertzeak bertze.

15 urteko
garantia.



Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisitatu gure erakusketa



Himalayako Mendialdean: **SHERPA**

Sherpek, bide-erakusle trebeek eta garraiatzaile nekaezinek, gailurreraino eramaten dituzte espedizioak, baita egoerarik barrenetan ere.

Nafarroako Mendialdean: **CEDERNA-GARALUR**

Orientazioa eskainiko dizugu
Laguntza eskainiko dizugu
Finantziak bilatuko dizugu
Zure proiektuen gailurrera iristen lagunduko dizugu

